

GELI GASTEIZ

GEU ELKARTEAREN BABESAREKIN



geu gasteiz aldizkariko langileek
gure elkartasuna adierazi nahi diegu egin eta
egin irratiko
langileei, gasteizkoei bereziki, egin-i, eta gizar-
te osoari oro har,
egindakoa gogorki salatzen dugularik

Zenbait

Jaiak ospatzeko plangintza estrategikoa

IOSU KINTAS ARETXABALETAK / GEU ELKARTEKO BATZORDEKIDEA

Informatikaren *boomak* eraginda-edo, aspaldion badirudi programazio zorrotzaren aldeko *inbasioak* bete-betean harrapatu dituela bazterrak. Eta agian horregatik euskalgintzan dihardugun herri erakunde, elkarte eta taldeetako lagunok ere gure ekimenak zehatz mehatz planifikatzeko gero eta premia handiagoa somatzen ari gara egunez egun. Hala iruditu zait, behintzat, gure artean eta batik-bat hedabideekin darabilgun adierazpidea ikusi ostean.

Helburuak eta lan ildoak garbi zehazteari egoki deritzot, baita baliabideak etengabe hobetzeko ahaleginak egiteari ere. Baina horren ondorioz gaur egun erabiltzen dugun hizkera ilunak ez dakit gure mezua behar bezala argitzeko balio ote digun, sarri euskaltzaleak erakarri baino *konkistatu* asmotan gabiltzala ematen duelako.

Garai batean, esaterako, *kanpainak* prestatzea zen gakoa. Horiek burutu eta pozik itzultzen ginen etxera. Gero, *unean-une*ko *ekintza isolatutzat* hartu genituen haiek. Beraz, jarduna erizpide jakin batzuen inguruan antolatuta beharra zegoen eta *plana* nahiz *proiektu* berbak ekarri genituen hiztegiara. Antza, *aurkikuntza* hark ez zigun gogobetetzen eta *plangintza*, *egitasmo*, *egitamu*, *egitarau* eta halako izenak ere ikasten hasi ginen berehala, gardenagoak zirelakoan. Egun, aldiz, horiek guztiek zentzu osoa galdua omen dute *taktiko* eta *estrategiko* moduko hitz potoloak eransten ez badizkiegu.

Ez dakit lehengo *plan* arruntak gaurko *plangintza estrategiko*-ekin alderatzerik dagoen. Baina ameslari izateko joera nabarmena dugunez, maiz gertatu(tzen) zaigu asmoak ahalen gainetik jartzea, eta horrexegatik jotzen dugu gehiegitan estatistiketako %0 azpiko hotz-beroa zabaltzera noranahi, paper artean lortzeke laga ditugun "helburuak" mozorrotu guran.

Hortaz, auskalo noiz-nork *asmatuko* duen hurrengo esa-

molde tekniko bitxia asmatzen. Agian, euskararen aldeko *tropak* herri-hiritan *taktikoki* kokatu arte itxoin beharko dugu, *posizioak* berreskuratzen hasi eta *plazarik nagusienak* gureganatu ahal izateko. Horrela, euskara ederto *bultzatu*-ko genuke Napoleonen *eraginpeko* eremu idorretan barna.

Bitartean, den-dena planifikaturik jarduteko sasoia heldu zaigu eta euskaldunok, orekazale ez garen neurrian, *muturretara* jotzeko arriskua dugu berriro, naturaltasunari eta inprobisazioari zirrikiturik ere uzten ez badiegu gure eguneroko langintzan.

Artillero, dale fuego...! danbatekoen artean kantari ibili barik, ordea, nahiago nuke Oskorrik plazetan irakatsi zigun ...*guretzat berdin dira astea eta jaiak, lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia...* doinuari darion filosofia bizi.

Hartara, *aginte-makila*, *soldadu orok dauka(la)* zorroan esan zuen Napoleonek. Arrazoia zuen, haren ondotik Lucien Bonaparte 1856an gurera etorri eta gaur arte ongi asko agindu baitzikigu euskalkien nondik-norakoak.

Egunotan, berriz, bertsolariak ditugu euskararen *abangoardiako soldadurik pres(ta)tuenak*. Makila zorrotik ateratzea falta dute, jakina. Hala ere, aginte aldera eramateko oso aproposak dira bertsolaritzaren estrategia, bertsolarien etorria, gatza eta piperra. Hots, bat-bateko ateraldietan trebatu direnak konponbide zuzenagoak mahairatzeko moduan daude astia hartuta eta, gainera, errealitateari atsegin begiratzeko era berezia dutenez, *neurria*, *oreka* bilatzen dute-diotte beti. Hortxe da, adibidez, Fernando Amezketarra eta Lazkao Txikiri buruzko marrazki bizidunek izandako arrakastaren funtsa.

Kontuak kontu, laster Zeledonon goardasolaren babesera bilduko gara *erretagoardia*-tik eta jaietarako *planik* dugun ala ez erantzuten ibiltzea ere ez da txit estrategikoa. Ez horixe. Datorrena datorrela. Ekin, bada, festari.

Naturaren isladak



Uhandre marmolairia (*triturus marmoratus*)

GEU GASTEIZ, Gasteizko
Euskaldunen hilabetelekaria

ERREDAKZIOA:

Pedro Asua, 2 + 3.a
Telefonoa eta Faxa: 22 21 53

ZUZENDARIA:

Estihu Breñas Glez. de Zarale.

ERREDAKZIOBURUA:

Asier Pz. de Karkamo.

ERREDAKZIOA:

Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz
de Mendibil, Txabi Arnal-Gil, Raul
Saez de Euruaga, Itziar Uriarte.

ARGAZKIAK:

Edorta Sanz.

MAKETA:

Galzagain Argitarapenak
Telefonoa: 970 40 18 46

INFOGRAFIA:

Alex Badillo.

KOMIKIA:

Iñigo Sarasola

NATURAREN ISLADAK:

Conrado Iejado.

KOLABORATZAILEAK:

Maixa Lizarribar, Agurtzane
Arrizabalaga, Ainhara Zuazabeitia,
ATEA, Iñaki Aginagalde.

PUBLIZITATEA:

Karlos Fdez. de Beloño.

BANAKETA ARDURADUNA:

Txipi Ormaetxea.

INPRIMATEGIA:

Gerlu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

ALE KOPURUA:

2.500


LG: VI-582/92

ISSN: 1133-0988

Frankeo Ilundua 48/27 zenb.

ALDIZKARI HAU PAPER
EKOLOGIKOZ EGINA DAGO

Geu Gasteiz hilabetelekariak
ez du bere gain hartzen
bertan adierazitakoen erantzunkizunik.



festetako
egitarauak:
ofiziala,
blusena,
txosnena,
canal gasteizena...

iritziak

30 Gorka Aginagalde

Salbuespena salbuespen.

33 Maixa Lizarribar

...ta bueltak amai.

34 ATEA

Zezenketen bidegabekeria.

hileko gaia

6 Komunikazioa

Komunikabide bat itxi dute.

jaiak

8 Euskara

Festetako gune euskaldunak.

10 Txosnak

Gozamen herrikoa.

12 Martin Fiz

Urrezko Zeledoa

13 Bandoa

Euskaldun izateko deia.

15-22 Egitaraua

Egitarau ofizialak zein alternatiboak,
gomendioak...

kultura

14 Uda giroa

Gasteizko kaleak bizirik.

23 Musika

Betagarri.

26 Gaurkoak eta betikoak:

Enrike Zelaia, Los Rodriguez, PILT eta
Kepa Junkera.

27 Agenda

Abuztuko kultur ekitaldien zerrenda.
Erakusketaretoak.

ohikoak

2 Geu Elkartearen hotsa

Naturaren isladak

4 Santa Barbara azoka

Euskararen termometroa

5 Kalea Mintzo

28 Piti-pata

32 Komikia



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak
diruz lagunduriko aldizkaria

posta

Leku hau zuen gutunentzako utzi nahi dugu. Lagun iezaiguzue betetzen. Mila esker!

santa barbarako azoka

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzi postazi:
pedro asua, 2. 3.a faxa. 22 21 53

SALTZEN DUT

Larruzko kazadora bat saltzen dut. Heavy edo punky. batentzako aukerakoa. Talla 40, berri-berria dago. Jantzea nahi baduzu deitu

945 13 27 58 Espe
(9etatik 10 etara)

6 katakume salgai, 1.000 pezetan bakoitza. Aita zein ama kaletarrak

945 14 54 90

Sarrerazko lanpara eder bat daukat salgai; kristal txiki asko ditu ilera batzuetan.

945 22 73 03 Maite

Telefono mugikor bat daukat

salgai. Ascom Elisto (Airtel), Merkatuan 19.000 pezeta balio du eta nik 15.000 pezetan salduko dizut

945 22 73 03 Jabi

ALOKATZEN DUT

Aktiboan dagoen harategia alokatzen da. Esparru zabala da eta ondo prestatuta dago.

945 24 08 65 Ana

Abuztua Zumaian pasa nahi baduzu... pisu txiki alokatzen dut. Ongi kokatua, erabat hornitua.

943 86 18 15 Jose Fran

DEITZEN DIZUT

Ohiko osasun sistemam auzten ez bazaituzte, zatoz Sumendi osasunaren autogestioaren aldeko elkartera

945 22 65 03

Ez hago bakarrik! Hator Gasteiz. Informazioa, hitzaldiak eta eztabaidak, psikologi, sexologi eta lege aholkularitza... Bilerak asteazkenero.

945 25 77 66

Gasteizko Esperanto Elkartea. Hizkuntza txikiak maite ditugulako, esperantoz mintzatzen gara.

Zapatari kalea, 29

Irailetik aurrera, egun osoz, kanguro euskalduna behar dut.

945 17 50 46

Geu Gasteiz aldizkaria.
Pedro Asua kalea, 2. 3.a
faxa: 22 21 53

PREMIAZKO TELEFONOAK

S.O.S. DEIAK:	088	AUTOBUS GELTOKIA:	25 84 00
UDALZAINGOA:	092	RENFE:	23 02 02
INFORMAZIOA:	010	AIREPORTUA:	16 35 91
SUHILTZAILEAK:	16 11 11	ERREPIDEETAKO INFORMAZIOA:	28 20 00
GURUTZE GORRIA:	22 22 22	HIRI-BABESA:	16 11 61
D.Y.A.:	28 10 20	UDALETXEA:	16 11 00
ERRETXEETAKO URGENTZIAK:	24 44 44	FORU ALDUNDIA:	18 18 18

hozkailluan

Bihotzonekoak garenez hutsa utzi nahi izan dugu oraingoa hozkaillua. Gasteizko Festak datoz, eta festekin batera denok euskaldunagoak izango garenaren esperantza. Hori bai, jaietan egindakoari jarraipena ematen ez badiogu, berriz ireki beharko dugu. Besterik gabe, onak izan, hobeto pasa, eta izan euskaldun!

Eskertzekoa da benetan Florida parkeko turismo bulegora joan eta harremana euskaraz egin ahal izatea. Nirekin egondako lehenengo langileak ez zekien euskaraz hitz egiten, baina nik galdetutako guztia ondo ulertu zidan, eta ezer esan gabe, aurpegi txarrik jarri gabe, edota "hable en castellano, que no sé euskara" edo holakorik entzun gabe, oso era naturalean beste baten bila joan eta gustura oso aritu ginen euskaraz mintzatzen; sentsazio onarekin atera nintzela aditzera eman nahi nuen. Besterik ez!



autondoan

GEU GASTEIZ

ALDIZKARIAK JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurrez eginak
eta **OSAGARRIAK**

artisaun lanak
lorategi eta barrualdeko-proiektuak
egiten ditugu

Errementari (HERRE) 38, behea tfnoa.: 25 25 03 01013



Xabier

taberna

musika ona
eta giro
ezinhobeia

Aiztogile (KUTXI), 23

kalea mintzo

TESTUAK: NAGORE ZEBERIO ARGAZKIAK: ANIA IBISATE



IDOIA NOVOA
IKASLEA

1.- Gizarteak inposatzen duen moda bat da, norberak bere buruarekin egon behar du gustura eta kitto.

2.- Nire buruarekin gustura ez banengo zentro berezi batera joango nintzateke, baina beti mediku baten laguntzarekin.

- 1.- Azken aldi honetan gorpuzkera ona edukitzea modan dago, eta komunikabideetan argal egoteko iragarki mordoak ikusten ditugu. Zer deritzozu?
- 2.- Argaltzeko metodarik frogatuko al zenuke?

DIETAK

Ezer gutxi. Udararekin batera eguzkiak bere izpiak erakusten dituen era berean, lehenbiziko buruhaustea azaltzen zaizkigu. Eguzkia hartzeko prest egon behar dugu eta horretarako gure gorpuzka behar bezala moldatu nahi izaten dugu. Gazteenek kirola aukeratzen duten heinean, helduagoek horietako dieta madarikatuak burutzen dituzte, medikuaren aholkuei jarraituz edo jarraitu gabe.

Gu dieta gaitzat harturik kalera abiatu ginen eta, ondoko galderen aurrean erantzun eta proproposamen hauek eman zizkiguten gasteiztar batzuek. Ikus ditzagun!



FELIPE BREGON
LANGILEA

1.- niri ondo iruditzen zait. Argaldu nahi duenak gal dezala pisua eta gustura dagoenak jarrai dezala horrela.

2.- Kirola egitea ondo dago eta kalte egiten didan janaria jaten ez badut, kiloak gutxitzea errazagoa dela uste dut.



DIEGO GIRALDO
HOSTALARI-PLAZA

1.- Denetarik jan behar da baina kirola egitea ere garrantzitsua da. Gauza ez da gehiegi zaintzea, beharrezkoa dena baizik.

2.- Gozoak jateari utziko nioke, kalte egiten baitute eta pisua galtzen laguntzeko zuzenena dela deritzot.



OIARTZ ORTIZ
IKASLEA

1.- Jendeak argal egon behar duela uste du. Gero arazoak datoz: anorexia... Bakoitzak egoki jan-go balu ez litzateke gertatuko.

2.- Pisua galtzeko etxean bertan egingo nuke dieta. Gutxiago jan... pixka bat zaintzarekin nahikoa da.



M. JOSE SANCHEZ
LANGABEA

1.- Ez dut uste komunika-bideek engainatu nahi gaituztenik. Engainatzen usten dena harapatzen dute.

2.- Argaltzeko gimnasio batera joko nuke eta jakietan pixka bat kontrolatu. Zentro berezi batera joateko gauza larria izan behar da.



ANTONIO FERNANDEZ
ESPEZIALISTA

1.- Ni honen guztiaurren aurka nago, ikaragarri gus-tatzen baitzait jatea. Gero gaixotasunak sortzen dira eta arazo larriak familetan.

2.- Gutxiago jango nuke eta kirol pixka bat egin, baina zentroen kontrakoa naiz.



GASTEIZKO BATZOKIAK ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

GEU GASTEIZ ALDIZKARIKO LANGILEOK GURE ELKARTASUNA ADIERAZI NAHI DIEGU EGIN-EKO LANGILEEI, GASTEIZKOEI BEREZIKI, EGIN-I, ETA GIZARTE OSOARI ORO HAR, EGINDAKOA GOGORKI SALATZEN DUGULARIK, ETA EGIN-EKO LANGILEEN AHOTSA GASTEIZKO KARRIKETATIK ZABAL DADIN, BERAIENTZAT TXOKO HAU:

METAMORFOSIA

Gasteizko Egin-eko langileak

ientifikoek aztertu beharreko metamorfosia ezagutu dugu EGIN-eko langileok. Uztailaren 14-ko gauean kazetari oheratu ginen eta hurrengo goizean terrorista esnatu ginen. Politikagintzan karrera egin nahian dabilen epaile bati esker, gure lana krimen bilakatu da, egunero ateratzen genituen orialdeei inongo errugabetasun-presuntzioa ukatuz. Egun batetik bestera informazioaren alde eta askatasun adierazpenaren alde egiten genuen lana debekatu egin dute, gurekin batera Euskal Herriko

gizarte mugimendu ugari ere ixilaz nahian.

Errugabetasun-presuntziorik gabe ere badaude gure familiak, sostengurik gabe geratu baitira Garzonek bere ikerketa luze eta motela biribiltzen duen bitartean. Justiziak bere papera justifikatzen duen bitartean gu lanik gabe, eta milaka irakurle beren irizpidea islatzen zuen komunikabiderik gabe, utzi nahi gaituzte. Alperrikako lana, zeren eta, gure herri honetan informazioaren alorrean zeregin erraldoia dago eta gu lan hori gure gain hartzeko prest gaude, momentuz *Euskadi informacion* dioen izenaren azpian.

Babesik eza eta ezintasuna zer den ederto ikasi dugu egunotan, legea ez baita denontzat berbera.



Krimenaz jantzi nahi izan dute haientzat deserosoa dena eta horretarako Justiziaren (non???) babesa eta Legearen aitzakia topatuko dute

EGIN-eko langileok kezkatu gaude, orain hasitako dinamikak guregan geldituko ez den itxura osoa dauka-eta. Edonola ere, jakin dezala hurrengoak, guk aurkitu dugun elkartasun itzela jasoko duela gure partetik.



HEGOALDE
euskaltegia.

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

**matrikula
zaitez!**

Tu Invernadero
zure lore sortak

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

OLARIZU MENDI

HERRIKO TABERNA
JOSE URUÑELA
KALEAN

GASTEIZKO

IRUBIDE

RAMIRO DE MAEZTU
KALEAN

HERRIKO TABERNA

HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA

"SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN

TOPAGUNEAK, Euskal Herriko euskal elkarteek eta herri aldizkariak osatzen dugun taldeak, zera adierazi nahi du:

Honako agiri hau sinatzen dugunok ondorengo arrazoiengatik Egin egunkari eta Egin Irratiari gure elkartasuna adierazi nahi diegu:

1. Administrazio kontseilu bateko kide batzuri leporatutako balizko delituengatik komunikabide bat istea ez dela bidezkoa irizten dugu, pertsona fisiko batzuen ustezko jardunak eta komunikabidearen funtzio-

namendua bereiztu behar baitira.

2. Adierazpen askatasuna giza eskubide bat izanik, komunikabide hau isteko erabakiak giza eskubide hori ez errespetatzea dakar, hainbat pertsonari informazioa jasotzeko bide bat itxi zaiolako.

3. Horrelako neurri larriek gatazka eta tentsio giroa areagotu besterik ez dute egiten eta

Hauek izan gara orainarte Egin eta Egin Irratiaren aldeko agiria sinatu dugun herri aldizkari eta elkarteak:

Geu Gasteiz aldizkaria
Galtzaundi Kultur Elkartea
Gobekokale aldizkaria
Txintzarri aldizkaria
TTipi-TTapa aldizkari eta telebistako langileak

Deiadar aldizkaria
Irutxulo aldizkaria
Maxixatzen aldizkaria
Eraz aldizkaria
Goierritarra aldizkaria
Berton aldizkaria
Bizarra Lepoan aldizkaria

Berrigara aldizkariko langileak
Drogenitturri aldizkaria
Eta Kitto! aldizkaria
Barren aldizkariko langileak
Noaua! aldizkaria

GATZAGAIN ERE EGIN ETA EGIN IRRATIAREKIN

Gatzagain argitarapenak, Geu gasteizko diseinu eta maketazioaren ardura duen editoriala, bihotzezko elkartasuna adierazi nahi die Egin eta Egin Irratiko langileei, baita, nola ez, beren lana burutzeagatik preso diren Orain editorialeko lankideei. Adierazpen askatasuna lelotzat duen Gatzagain argitarapenentzat, egun oso tristeak dira hauek, gure aurrekoen istorioak gogora ekartzen dizkigutenak.

Orainen ixteak, Egin Egin Irratiko, Lema 2000ko eta beste hainbat enpresako langileak kalean uzteaz gain, datorkigun etorkizun beltzaren aurrekari bat besterik ez da. Orainen gartzelaratzearekin adierazpen askatasuna gartzelaratu dute, eta horrek gizartearen erantzuna jaso behar du, mende honen zatirik handienean bezala, euskalduna den guztia (gure hizkuntza, gure kultura, gure ikastolak, gure ikurrina...) berriz ere gartzelan ikusi nahi ez baditugu.

Uda honetarako
begi itzalik ederrena
aurkezten dizugu

Eguzki **Betaurreko**
Graduatuak Mencia Optikan



<http://www.multiopticas.es>



ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENCIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Larunbat arratsalde zabalik: 5.00 - 8.30

Aihotz eta Buruileria plazetan, txosnetan... euskara present izango da jaietan

Izan zaitez euskaldun aukerak badaude eta



Aihotz plazaz gain, aurtan Buruileria plaza izango dugu ere euskal kulturaren erakusgarri



Aurtan ere aitzakiarik ez dago. Andre Maria Zuriaren Festetan euskarak kalea bere egingo du. Gure hirian euskaraz aritzea sarritan erreza ez dela dakigun arren, urtean zehar abentura dena errealtate bihur daiteke hiriko festetan, Gasteizko kaleetan

barna euskal hiztunen kopurua zeharo handitzen baita abuztuaren 4tik 9ra bitartean.

Aspaldidanik Aihotz plaza euskal kultur eta folklorearen gune bilakatu ohi da Andre Maria Zuriko jai egunetan. Halere, Goiuri Jauregiaren itzalpean hiriko txokorik ede-

rrenetakoa denak euskaltzaleon bilgune gisa gorpuzten ziharduen heinean, lekua ghetto bihurtuko ote zen arriskua zabaltzen hasi zen. Euskara

CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK

MERKURIO-KADMIODAN
%0a

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA

CEGASA
INTERNATIONAL
TOP ENERGY
ALKALINE

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

IPARRA
taberna
Giro ezin hobea!

Florida, 80
Tfnoa. 26 77 81 GASTEIZ

ALISAS
TABERNA

KUTXI 59

eta euskal kutsuko ekitaldientzat txiki geratzen zen Aihotz plaza eta, horretaz gainera, ez zen zilegi hainbeste jai-eremu egonik bakarria eskaintzea euskal kultura zabalari.

Gasteizko jaiak asko zor diote euskarari. Edonola ere, urteko gainerako egunetan euskaldun izateko para-

da dugun lez, gauza bera gerta daiteke. **Betagarrik euskal txoko berria, Buruileria plaza, estreinatzeko beta izango du aurten**

Andre Maria Zuriaren Jaietan. Eta ez Aihotz plazan soilik, hiri osoan baizik. Ekitaldi propioez gain (pailazoak Vicente Goikoe-
txea kalean, txotxongi-
loak Peñafloidako Kontearen plazan, Aihotz plazako ekitaldiak, kalejira eta euskal doinuak kale eta auzoetan...), gure esku dago hiria euskaldun izatea, euskaldunak gutxi bagara ere. Edonon gaude-eta.

Ez dugu ahantzi behar, Udalak antolatutako ekintzez aparte, hainbat ekitaldik eta gune euskal zaporea dastatzeko beta ematen dutela; hara non txosnak, Gazte-
txea, Alde Zaharreko hainbat kale eta toki, besteak beste. Aurten gainera Andre Maria Zuriaren Jaietan euskal musika (moderno) entzuteko gune berria estreinatuko da eta, hortaz, behar bezalako agurra eman

behar diogu Buruileria plaza txukunari.

Baina, eta honekin uzten zaituztet, euskaltzaleon nahia ase dezaketen ekintza anitz daudela gogorazi nahi dizuet berriz ere. Egitarau desberdinei so egin eta jabetuko zarete, nahiz eta Gasteizko euskaldunoi eta eus-

Jaiak, bortxaketak eta mina

Ezin ixil naiteke uztailean Mungian eta Iruñean gertaturiko bortxaketa eta jipoien aurrean. Mungia-
txosnetan (dena den, ez dut ulertzen -
beno, edo agian ongiegi ulertzen dut-

nola jar daitekeen txosna eremua industrialde ilun eta leku bazter batean; hori ez baita toki egokia jai-zonalde baterako) bi gazte izan ziren bortxatuak; lehenengo neska bat eta mutil bat gero. Irratian eta telebistan albiste higuigarri hori aditu nuenean, sekulako amorrua sentitu nuen nire baitan. Ezin gera naiteke ahoa itxita, eta oihu xume hau bi gazte hauei hel

dakien nahi nuke... Baina hau ez da bakarra, eta Aurora Beltranek (Tahures Zurdos) San Ferminetan pairatu jipoia ere salatu nahian, hona hemen munduko holako zital, doilor, malmutz, jendila, jendilaje orori opa diedan etorkizuna: buelta etorriko ahal zaizue!!!



kaltzaleoi oraindik exijitzeko asko geratzen zaigun, Andra Maria Zuri-
ko egunetan ondo pasatzeko eskaintza anitz badugula.

TESTUA: ASIER PZ. DE KARKAMO
ARGAZKIAK: EDORTA SANZ



o
m
e
n
e
u
a
g
u
n
e
k



Peru, 8
22 60 50

Jose
Mardones
kalea, 8
26 35 40

Arana, 30
25 24 00

**MARRAZKIAK
KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK**

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 13 27 20

GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- FotoKopiak

kolorez eta Zuri-Beltzean
Arte ederretarako...
behar duzun
guztia

PAPERTEGI TEKNIKON

Jaia eta lan herrikoia elkartzuz, txosnez gozatu

Ohiko bihurtu den bezala, aurten ere Katedral berriaren harrizko gargolak gauez ernatuko dira txosnetan joko duten taldeen musikaren erritmora dantzatu ahal izateko. Eta izaki arraro hauek txosnetako giroaz berotzen badira, edonor bertara daiteke Luis Heinz kaleraino.



Txosnak nahitanahiez jaietako beste gune bat dira. Aldapan zein Alde Zaharrean sortzen den giroa bezain normala da, edonor hurbil baitaiteke, azpimarratzen zuen Txosnen Batzorkidea den Iñaki Uribarrik. Hala ere, alderdi politiko batzuk, PSOE-ren agintaria den Andrés Sánchezek hain zuzen, txosnak leku lasaia ez direla izango leporatu digu, PP-ko zinegotzi bat hortik bizkarzainik gabe ibili arte. Baina

hau, zoritxarrez, Euskadi dardaratsu honetan, ezin dakiok Txosnen Batzordeari eska, PP-ko zinegotzi bera ere ezin baitaiteke Dato kaletik ziur ibili. Ezin ditzakegu euskal gizarteari eragiten dizkioten arazo politikoak konpondu.

Haatik, Txosnen Batzordeak hala urtean zehar prestatu jai egitaraua nola "zerbitzu ezin hobea" berma

diezaieke bezero guztiei. Aurten, gainera, Udalarekin sinatutako hitzarmena dela-eta, Txosnen jai egitaraua Udalak prestatutakoarekin batera iragarriko da eta Erakunde publiko honetatik dirulaguntza jasoko dutela ziurtatzen da. Bere aldetik, Txosnen Batzordeak udal zergak ordaindu beharko ditu eta barretan arituko diren zerbitzariak maneiu-karneta izan beharko



ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16 28 28 39
01002 Gasteiz

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



Pintore kalea • S. Frantzisko
kantoieko ertzean Tfnoa: 25 03 52



Ardatz itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana kalea, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile (KORRE), 14 San Migeleko Pasabidea
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

dute.

Udala eta Txosnen Batzordearen arteko hitzarmena

Udalarekin hitzarmena erdiestea beharrezkotzat jotzen zuten txosnen arduradunek. "Iaz, PP-ko zinegotzia zen Miguel Angel Blancoren heriotzaz baliatuz, agintari politiko batzuk txosnen aurka aritu ziren. Hau normalizatzeko erabat premiazkoa ikusten genuen aurten Udalarekin lortu-tako akordioa".

Akordio honetan txosnen kokapena, Luis Heinz kalean, eta hauen kopurua, gehienez 23, zehazten da, alde batetik. Eta bestaldetik, Txosnen Batzordearen garrantzia onartzen da.

Elkarte legal gisa eratua, Batzordeak txosnak jartzeko baldintzak:

-talde herrikoia eta irabazi-asmorik gabekoa izatea, urtean barrena Gasteizen lan egitea eta Txosnen Batzordeko bileretan esku hartze-arautzeko ahalmena du, orain arte egin duen moduan. Era berean, lehen aipatu bezala, udal zergak eta baldintza higienikoak bete beharko ditu.

Autogestionatua, demokratikoa

Nahiz eta Udalaren partetik dirulaguntza jaso, txosnak autogestionatuak direla esan daiteke, kontzertuetan kasik sei milioi gastatuko ditugu eta Udalak ematen digunarekin udal zergak baino ezin izango ditugu

ordaindu, azaltzen zuen Iñakik. Man-komunitate-gastuei aurre egiteko, -kontzertuak, aseguruak, zergak...-txosna bakoitzak ia 200.000 mila pezeta ordaindu beharra dauka.

Urteko lana sinplea bezain konprometitua da, talde bakoitza zehazturiko bileretara joan behar baita. Diruzaintza eta idazkaritza ezezik, bi batzorde ere badaude bertan: bata harremanez eta txosna bakoitzari egokitu zaion tokiaren kokapenez arduratzen dena, zeinak udalarekiko hitzarmena eskuratu duen; eta bestea, Kultura Batzordea, zeinak taldeen kontratazioa eta egitarauaren argitarapena bere gain hartzen baitu. Aurten kartel-lehiaketa bat antolatu dute ekitaldiak iragartzeko. Urteko plangintza eta aurreko urteko balorazioarako asanblada orokor bat egin ohi da txosna guztien artean, eta gero, urtean zeharreko lanak burutzeko, bakoitzak nahi duen batzordean parte hartzen du. Erabaki garrantzitsuak hartu behar badira asanblada orokor horretara jotzen da, bestela batzorde bakoitzaren esku uzten da erabaki beharrekoak.

Txosnen zerrenda: AEK, IKA, EHE, Euskaraz Bizi Taldea, Bagare, Herri Batasuna, Zutik, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Jarrai, Ikasle Abertzaleak, Komite Internazionalistak, Askapena, Kakitzat, Malatxa, Hala Bedi, Eguzki, Egizan, CGT, SOS Racismo, Euskal-arabiar taldea eta Mugen Gainetik-Salhaketa.

TESTUA: RAUL SAEZ DE BURUAGA

1 x 2 =
2

2000 BAGARA
4000 IZAN GAITEZKE



HARPIDEDUN!

zure aita, ama, anaia, arreba, iseba, osaba, luhengusua, lehengusina, semea, alaba, aitona, amona, iloba, berramona, berraitona, biloba, aitagiarreba, amagiarreba, suhia, erraina, lagun eta ezagunak...

...EGIN ITZAZU
HARPIDEDUN

DASAIEZU TXARTELA, BETE DEZATEN

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendañu kalea 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

MIKO
izozkiak



GYREA
jatetxea

Konstituzio plaza, 10
Telefona: 24 59 33

Izen-deiturak _____
Telefona _____
Helbidea _____
Kodea _____
Herria _____
Jaiotze data _____ Lanbidea _____

Urteroko kuota: 1.500 pezeta
Kontu zenbakia (20 zenbaki)
Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia _____

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA
PEDRO ASUA, 2. BA.
01008 TFNOA: 22 21 53

f martin fiz

Azken urteotan gutxitan ikusi dut Zeledoa jaisten



TESTUA: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

Aurtengo Urrezko Zeledoa Saria kirolari bati dagokio; Martin Fizi, alegia. Gasteiztarrek ez daki gezurak esaten, eta lasai asko aitortzen du ez zuela sariaren berririk. Halere, Martin ez da lehengo gaztea, eta irudia saltzen eta erabiltzen ere ikasi du.

Azken urteotan hamaika elkar-
rrizketa egin dizkizute...

Ez dakit zehatz-mehatz
zenbat izan diren, baina mila-
ka.

Izan ere, egun, bakoitzak
bera saltzen jakin behar
du... Martin Fizek ba al daki
hori egiten?

Lan egiteaz gain, zure
burua saldu beharra daukazu.
Kakoen artean, prostituitzen
zara.

Dena den, Martin Fiz, Forjas
Alavesas-eko langile baten
semea, Mercedes batean

Jainkoak atsedean hartzen
omen zuelako. Egun bestela-
koa da egoera: soldata eska-
sak, ETT-ak...

Bai, ez dakit zer esan, baina
atsedena behar-beharrezkoa
da lan egiteko orduan. Nire
ustez, hobeto bizi gara orain.

Bestaldetik, Deportivo Alaves
eta Baskonia, egunkarietako
lehen orrialdeetan egunero
ditugu, Martin Fiz, berriz,
gutxitan...

Inbidia pixka bat sortzen dit
honek; alabaina, agerian da
Arabian, beste leku batzuetan

mena polita iruditu zitzaidan,
eta egin genuen. Andaluzian
ere ikusi dut egutegia.

**Eta zure laguna den Juanito
Oiarzabal ere laguntzen du
Diputazioak...**

Txantxetan esan ohi diot,
baina berak ederto ezagutzen
ditu Arabako Foru Aldundiko
txoko guztiak...

**Japonian hemen baino gehia-
go maite zaituzte?**

Bai, han ez nagoelako egu-
nero.

**Oporretan gaude, zu bezalako
kirolari batek noiz hartzen**

zarelako...

Egia esan, ez nuen saria
ondo ezagutzen, baina, oso
sari garrantzitsua da niretzat,
nire herriko jendeak hautatu
nauelako.

**Urrezko Zeledoa izan arren,
azken urteotan gutxitan
ikusi duzu Zeledoa jaisten.**

Egia da. Olinpiadak, mun-
duko txapelketak... Aurten
Andre Maria Zuriaren plazan
egongo naiz azkenik.

**Batzuek Gasteizko jaietan
txosnek lekuri ez dutela
diote...**

Jaien zati bat dira. Elkar
errespetatzen badugu, ez
dago arazorik.

**Eta blusa taldeek diru gehiago
eskatu diote Udalarari...**

Blusek ahalik eta diru
gehien lortu nahi dute, baina
Udalak dagoen dirua banatu
beharra dauka; elkarriketa
da bidea.

Martin, ondo pasa jaietan!

Baita zuek eta Geu Gasteiz-
ko irakurleak ere.

2.000. urtean, Sidneyko Olinpiadez geroztik, korrika egiteari utxiko diola jakinarazi zuen

ibili ohi da Gasteizetik...

Babarrunak jan behar izan
ditudanean, jan ditut, eta
noski, angulak jaten ere bada-
kit. Nolanahi ere, babarrunak
berriz jan behar baditut, jabal-
tasun osoz jango ditut.

**Zure aitak, larunbatetan egiten
zuen lan, eta igandeetan ez,**

bezalaxe, futbolak eta saskiba-
loiak ahanzarazten dizkigute-
la ditugun beste arazo batzuk.

**Hala eta guztiz ere, Arabako
Foru Aldundiak zure irudia
erabili du 1998ko egutegi
batean. Ondo ordaindu
dizute?**

Ordaindu beharrekoa. Eki-

ditu oporrak?

Ahal dudanean, puntako
kirolarien bizitza motza baita.

Urrezko Zeledoa

**Gezurra dirudien arren, zure-
kin hitz egin nahi genuen,
aurtengo Urrezko Zeledoa**

LA RIOJANA

jatetxea
on egin!

bokatak, pintxoak,
kazuelatxoak

Aitzogile (KUTXI), 33 tfnoa. 25 02 39

ONGI
ETORI
R
I

xurru

KUTXI 103
GASTEIZ

**BAR
KLAKÉ**

KUTXA, 2
TFNO.
143883

GASTEIZ

B A N D O A

De parte de los abajo firmantes se hace saber a todas las ciudadanas y ciudadanos de esta noble ciudad:

Que no es el euskara, como antaño, lengua mayoritariamente utilizada en esta población, por lo que es preciso esforzarse en sus uso. Y como justo es pedir a los habitantes de esta ciudad que aprendan el euskara, también lo es pedir a los que lo saben a que lo utilicen con normalidad. Por lo tanto, y como corresponde, dei eta deiadar egiten zaio euskaldun jendeari euskara gure hizkuntza gaurdanik bertatik erabiltzera etxean zein jendaurrean, Gasteiz hiri euskalduna izatea lortu arte arrazoizko epe batean. Ez dago aitzakiarik ez mintzatzeko ezagutzen eta maite den hizkuntzaz: Horregatik aldarrikatzen dugu:

euskaraz eta kitto!

Euskaltzaleon Elkargunea, Txosnen Batzordea eta Blusen Elkartea.


Momentuz kolektibo hauek bakarrik eman diote baietza bandoari. Udaleko arduradunekin, Denon Eskola-rekin, Ikastolen Elkartarekin eta hainbat kolektibo eta pertsonarekin hitz egin da, baina edizio hau ixtarakoan, hauexek izan dira sinadurak.

Zizka-mizketan, Jolas Jaialdia eta Gasteiz Cup; kalea, jolasak, kirola, irribarreak, umeak zorionsu, zalaparta, herri anitz... Azken finean, gozamen... Lehenengo platererako aukera desberdinak eta osagarriak erabat: alde batetik, Bideo-jaialdia (aurtengo edizioak berrikuntzak ekarri; D.J-ak, Oihanederreko lorategian Parafunk-ek -Donostiako musika eta erritmo berriak lantzen dituen talde bat- eskaintako kontzertu paregabea...); eta bestetik, horma erraioldetako armi-armawomen eta armi-armamen-ek oparitutako ikuski-zuna, Eskalada Txapelketa, eta mila esker bereziki Josune Bereziartu eskalatzaille paregabeari bere gorputzaren trebetasunaren eta mugimenduen dotoreziarekin eskalada arte bihurtzen dakielako guztion gozamenerako.

Bigarren platerean, goi mailako jazz harat-honat, kalea ere okupatuz; eskertzekoa benetan!!! Eta bigarren plater hau, besteak beste, bertako saltsa gasteiztarrez busti ahal izateko, aipamen berezia 3 Jazz break taldearentzat, bertan bi gasteiztar izan baitira entzungai; Pablo Martín kontrabaxuan eta Daniel Oiarzabal pianoan (Uli Soyka austriarra ere baterian). Baina beti ere ahanzi gabe Victor Celada gasteiztarren bateria ikuskizun liluragarria, Jon Urrutia bertako pianojolea, De Diego Gasteizko saxofoijolea,...

Postreetan zaila izan da zein hautatu, piloa baitzegoen kartan aukeragai: Color Humano Aranan, Ekon eta Kashbad Aranbizkarran, Lorelei eta

Haize hotza eta zeru grisak oporrak hartu, eta ekainean eta uztaillean koloreen menua heldu zitzaigun gurera, bizitzaz gozatu ahal izateko gorputza eta burua egoki elikatu behar direla gogoraziz... Kokteletan, Folklore jaialdia eta artista ugari kaleetan barrena.



Tumbaito Errotan, Doctor Deseo eta La Xeta Paxote San Kristobal-en, Jelenge kubatarak Gaztetxean, Van Van Kubako taldea Elefante Blanco-n, The Brontës gasteiztarak, Mercromina, Undershakers-eko neskak eta Purr Kanpusean, Segismundo Toxicómano Adurtzan, Musikoterapia X. Mintegi europarra, Gazteen Abesbatza Europarra (Europako kantaririk hoberenez osaturik), Skate II. txapelketa San Martin Parkeko pistan, eta...

EAEn 185
epaile daude
eta
horietatik
guztietatik
hamabik
baino ez
dute euskara
ezagutzen

bukatzeko, jada nahikoa delako, zirrikituetatik guganatz mantso-mantso gerturatuz joan den beroa, ekia... Eta egindako aurkezpen zoragarri honen ostean ez hasi gero hauetatik gauza asko kritikagarriak direla esaten, makina bat aipamen falta dela... Bai, badakit egon badagoela zer kritikatu! Baina nik bederen ez nuen gogorik horretarako. Beste norbaitek egin dezala!!!



**LANDABURU
AKADEMIA**

KLASE
PARTIKULARRAK

Guatemala, 12. behe. 12 09 50

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

J A T E T X E A

XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ



JAI AK 98

Andre Mari Zuriaren omenez



Ze el Qndo

4

ASTEARTEA

ARRATSALDEAN

18:00

andre maria zuriaren plazan
98ko jaiei hasiera emango
dien Suziriaren jaurtiketa eta
Zeledonon jaitsiera.

18:45

udalekhen. agirre lehendakariaren kalea. porta kalea eta andre maria zuriaren plaza

Udal segizioa, honako hauek lagunduta: Udal Musika Banda, Udal Txistulari Banda, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa, eta gaitajole banda hauek: Udal Folklore Akademiakoa, Indarra, Eltziego, Ezberdinak, Erletxo eta Goizerdi.

san migel parrokitian

Beazperak, Lore eskaintza eta Herri-salbea, Andre Mariaren irudiaren aurrean, eta Erraldoi Konpartsaren dantzaldia.

19:00

santa barbara plazan

Musika-giroa: Biasteriko txaranga.

amarilla plazan

Musika-giroa: Lantziegoko txaranga.

aihotz plazan

Dantza: Goizaldi Eusko

Dantzari Taldea.

prado parkean

Dantzaldia: Jaitxo taldea.

20:00

principal antzokian

Respira Teatro: "Balada de los



tres inocentes" antzezlanak, Pedro Mario Herreroena, Fernando Guillén, María Asquerino, José M^a Escuer eta besterekin.

20:30

aihotz plazan

Dantza plazan. Larrain Dantza eta Txulalai, Udal Folklore Akademiako gaitajoleekin.

GAUEAN

22:00

erdialdeko kaleetan

Farolen prozesioa.

23:00

principal antzokian

Respira Teatro: "Balada de los tres inocentes", Pedro Mario Herreroena, Fernando Guillén, María Asquerino, José M^a Escuer eta besterekin.

23:30

arka plazan

Gau-jaia: Iraileko taldea.

olagibel kalean

8 zezensuzko eta musika-giroa: Biasteri eta Lantziegoko txaranga eta Callejon sin salida eta Kirrinka fanfarreak.



00:00

23:30

aihotz plazan

Kantaldia: Etzakit.

foru plazan

Kontzertua: Jarabe de palo.

00:30

espainia plazan

Libertad orkestra.

probintzia plazan

Latin-jazza: Calle caliente.

1:00

burulleria plazan

Kontzertua: Los padrinos

23:00-3:00

erdialde eta alde zaharrean

Musika kalean: Callejon sin salida eta Kirrinka fanfarreak.



ASTEAZKENA

GOIZEAN

7:00

erdi aroko hirigunean eta andre maria zuriaren plazan
Egunsentiko prozesioa eta errosarioa.

9:00

espainia plazan
Dianak: Udal musika banda, Udal txistulari banda, Arabako Foru Aldundiaren txistulari banda, Biasteri eta Lantziegoko txarangak, Gesaltza fanfarrea eta gaitajole bandak:
Udal folklore akademiakoa, Indarra, Eltziego, Ezberdinak, Erletxo eta Goizerdi.

10:00-14:00

foru plazako pilotalekuan
Andre Maria Zuriaren saria: eskuz binakakoa.

10:30

san migel parrokian
Gotzai-meza; Manuel Iradier abesbatzak parte hartuko du.

san kristobal eta adurtza auzoetan

Biasteriko txaranga.

santa luzia eta arana auzoetan

Lantziegoko txaranga.

11:00

zezen-plazan
Bigantxak

EGUERDIAN

12:00

zezen-plazatik abiatuta
Kalejira: Arabako trikiti elkarteak Erraldoi eta buruhandien konpartsa. Ibilbidea: Andre Maria Zuriaren plaza, Zapatari kalea, Arriagako atea, Ahate-iturri plaza, Jesusen zerbitzarien fundatzailearen kalea, Diputazio kalea, Espainia plaza.

12:00

vicente goikoetxea kalean
Pailazoak: Zirko ttipia (euskaraz).

peñafloridako kondearen plaza

Gargantua
espainia plazan
Ertzaintzaren musika bandaren kontzertua.

12:00-14:00

auzoetan
Callejon sin salida eta Kirrinka fanfarreak.
erdialdean
Gesaltza fanfarrea.

12:30

aihotz plazan
Trikitia: Pagoxueta elkarte eta Izarrako trikiti eskola.

florida parkean
Gasteizko Udal musika bandaren kontzertua. Euskal musika.

13:00

foru plazan
Herri kirolak: sokatira, txingurutea eta aizkolariak.

13:30

aihotz plazan
Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Jon Sarasua eta Anjel M. Peñagarikano.

ARRATSALDEAN

16:45

espainia plazatik zezen-plazara
Zezenetara joatea.

18:00

zezen-plazan
Abonuko lehen zezenketa. Jose Ignacio Charroren abeletzeko zezenak, Miguel Baez "Litri",

Enrique Ponce eta Manuel Caballero zezen-hiltzaileentzat.

vicente goikoetxea kalean
Biasteriko jotariak.

18:30

portetxe plazan
Lantziegoko txaranga.
andre maria zuriaren plazan
Biasteriko txaranga.

19:00

amarika plazan
Jazza: Jamila Castillo.
aihotz plazan
Txistu kontzertua eta dantza: Txistulari elkarte eta Udal folklore akademiako dantza taldea.
musika etxeak lorategian
Ganbera-musika: Ernesto Schmied eta Charo Indart (xirula eta klabea).

20:00

principal antzokian
Respira Teatro: "Balada de los tres inocentes", Pedro Mario Herrerorena, Fernando Guillén, María Asquerino eta besterekin.

20:30

zezen-plazatik espainia plazara
Zezenetatik itzultzea.
aihotz plazan
Dantza plazan. Larrain dantza eta txulalai, Udal folklore akademiako gaitajoleekin.
montehermoyo kulturunean
Ganbera-musika: Meliton Cuadrado eta Juan Manuel Ibarra musikariak (oboea eta klabezina).

GAUEAN

23:00

mendizabalean (phee)
1. su artifizialak, Italiako Martarello pirotekniaren eskutik.

principal antzokian
Respira Teatro: "Balada de los tres inocentes", Pedro Mario Herrerorena, Fernando Guillén, María Asquerino eta besterekin.

23:30

arria plazan
Gau-jaia: Iruña Band orkestra.
aihotz plazan
Kantaldia: Drindots taldea.
olagibel kalean
8 zezensuzko eta musika-giroa: Callejon sin salida eta Kirrinka fanfarreak.

00:00

foru plazan
Kontzertua: Carlos Nuñez.

00:30

espainia plazan
Boogaloos orkestra.
probitzila plazan
Son kubatarra: Son de la loma.

23:00-3:00

erdialde eta alde zaharrean
Musika kalean: Callejon sin salida eta Kirrinka fanfarreak.

1:00

buruileria plazan
Kontzertua: Betagarri talde gasteiztarra, Arren Erro Zaharra lan berria aurkeztuz.

6

OSTEGUNA

GOIZEAN

10:00

espainia plazan
Dianak (Ikus Seko egitarauan).

10:00-14:00

foru plazako pilotalekuan
Andre Maria Zuriaren saria:
Eskuz binakakoa.

10:30

babergabeen auzoan
Biasteriko txaranga.
abekzuiko auzoan
Lantziegoko txaranga.

11:00

zezen-plazan
Bigantxak

EGUERDIAN

12:00

**zezen-plazatik abiatu-
ta**
Kalejira: Arabako Trikiti
Elkartea.
**babergabeen alder-
dian**
Erraldoi eta
Buruhandien konpartsa
**peñafloridako kondear-
ren plazan**
Gargantua
vicente goikoekeak kalean
Pailazoak: Kollins clown
(euskaraz).
espainia plazan
Ertzaintzaren musika
bandaren kontzertua.

12:00-14:00

auzoetan
Musika-giroa: Callejon sin salida
fanfarrea.

12:30

aihotz plazan
Trikitia: Aguraingo Trikiti
Eskola.
florida parkean
Udal Musika Bandaren kontzer-
tua. Filmen musika.
**peñafloridako kondearen pla-
zan**
Txotxongiloak: Behi bi's (euska-
raz).

13:00

foru plazan
Herri kirolak: harrijasotzaile-
ak, zozkor apustua eta aizko-
lariak.

13:30

aihotz plazan
Bertsolariak: Jon Maia, Igor
Elorza eta Oihane Enbeita.

ARRATSALDEAN

16:45

**espainia plazatik zezen-pla-
za**
Zezenetara joatea.

18:00

zezen-plazan
Abonuko bigarren zezenketa.
Jose Luis Peredaren abeltzeko
zezenak, Vicente Barrera, Rivera
Ordoñez eta Jose Tomas zezen-
hiltzaileentzat.
vicente goikoekeak kalean
Jotak: Amigos de la jota.

18:00-20:00

**peñafloridako kondearen pla-
zan**
Gargantua

18:30

retarat plazan (judimendi)
Lantziegoko txaranga.
santa barbara plazan
Biasteriko txaranga.

19:00

amerika plazan
Jazza: Infussion.
prado parkean
Dantzaldia:
Jaitxo taldea.
aihotz plazan
Dantza: Andra
Mari taldea.
**musika etxeke
lorategian**
Ganbera-musi-
ka: Juan Jesus
Barbera eta Rosa
Campos Mico
(marinba eta
pianoa).

20:00

**principal antzo-
kian**
Joaquín
Kremelen kon-
painia: "Se
infiel... y no

mires con qui-en", Cooney eta
Chapmanena.

20:30

**zezen-plazatik espainia pla-
za**
Zezenetatik itzultzea.
aihotz plazan
Dantza plazan. Larrain dantza
eta txulalai, Udal Folklore
Akademiako gaitajoleekin.
montehermoso kulturunean
Ganbera-musika: Nuria Llopis
Areny (harpa).

GAUEAN

23:00

mendizabalean (shee)
2. su artifizialak, Felix Martinez
Leceta pirotekniaren eskutik.
principal antzokian
Joaquín Kremelen konpainia:
"Se infiel... y no mires con qui-
en", Cooney eta Chapmanena.

23:30

aihotz plazan
Kantaldia: Elurte.

00:00

foru plazan
Kontzertua: Lin ton taun.

00:30

espainia plazan
Casting orkestra.
problektzia plazan
Reggae-salsa: King mafrundi.

1:00

buruileria plazan
Kontzertua: Latzen talde oñatia-
rra, Ardi Larruz lana aurkezten.

23:00-3:00

**erdialdean eta alde zahar-
an**
Musika kalean: Callejon sin sali-
da eta Kirrinka fanfarreak.





GOIZEAN

10:00

espainia plazan

Dianak (Ikus 5eko egitarauan).

10:00-14:00

foru plazako pilotalekuan

Andre Maria Zuriaren saria:
Eskuz binakakoa.

10:30

san martin auzoan

Arabako Errioxa txaranga.

11:00

zezen-plazan

Bigantxak

EGUERDIAN

12:00

san migel parrokian

Blusa txikiaren ospakizuna,
Zeledon txikirekin, eta lore-
eskaintza, Andre Maria
Zuriaren aldarean.

zezen-plazatik abiatuta

Kalejira: Arabako Trikiti
Elkartea.
Erraldoi eta buruhandien kon-
partsa. San Antonio, Florida,
Foruak eta Posta kaleetan eta
Espainia plazan.

peñafloridako kondearen pla- zan

Gargantua

espainia plazan

Eltziegoko Santa Zezilia musika
bandaren kontzertua.

12:30

florida parkean

Udal Musika Bandaren kontzer-
tua. Hegoamerikako musika.

andre maria zuriaren irudia- ren aurrean

Ohorezko aureskua, Zeledon
txikik eskainia.

aihotz plazan

Trikitia: Arabako Trikiti Elkarte.

13:00

espainia plazan

Suziriaren jaurtiketa eta Zeledon
txikiren jaitsiera, eta musika-
giroa, Gasteiz farfarrearekin.

foru plazan

Herri kirolak: trontzalariak,
orga-jokoa, lasto-altxariak eta
aizkolariak.

13:30

aihotz plazan

Bertsolariak: Asier Otamendi,
Dani Kastaño eta Ricardo
Gonzalez de Durana.

peñafloridako kondearen pla- zan

Txotxongiloak: Txirrista (euska-
raz).

espainia plazan

Blusa Txikiaren kalejira. Andre
Maria Zuriaren plazan eta San
Antonio, San Prudentzio eta
Eduardo Dato kaleetan.

ARRATSALDEAN

16:45

espainia plazatik zezen-pla- zara

Zezenetara joatea.

18:00

zezen-plazan

Abonuko hirugarren zezenketa.
Cebada Gago abeletzeko zeze-
nak, Manuel Diaz *El Cordobes*,
Eugenio de Mora eta Miguel
Abellan zezen-hiltzaileentzat.

florida parkean

Haurrentzako dosteta: Teatro
traperero del rio (euskaraz eta
erdaraz).

vicente goikoezka kalean

Errioxako jotak: La Rioja kanta.

19:00

musika etxeko lorategian

Ganbera-musika: Alvaro Perez
Campo eta Sergio Gutierrez
(saxoa eta pianoa), eta Iratxe
Loma eta Raquel Garcia (klari-
neteja eta pianoa).

aihotz plazan

Euskal Herriko haurren III.
dantza askatu txapelketa.

20:00

principal antzokian

Joaquín Kremelen konpainia:
"Se infiel... y no mires con qui-
en", Cooney eta
Chapmanena.

20:30

zezen-plazatik espainia plazara

Zezenetatik itzultzea.

aihotz plazan

Dantza plazan. Larrain dan-
tza eta txulalai, Udal
Folklore Akademiako gaita-
joleekin.

montehermoso kulturune- an

Ganbera-musika: Collegium
Musicum Iribarren (oboa,
ganba-biola eta klabea).

GAUEAN

23:00

mendizabalean (shee)

3. su artifizialak, Caballer piro-

7

OSTIRALA

teknikaren eskutik.

principal antzokian

Joaquín Kremelen konpainia:
"Se infiel... y no mires con qui-
en", Cooney eta Chapmanena.

23:30

arka plazan

Gau-jaia: Eklipse.

aihotz plazan

Kantaldia: Egan.

00:00

foru plazan

Kontzertua: Sociedad Alkoholika.

00:30

probinzia plazan

Erritmo afrikarrak euskaraz:
Swing Latino.



1:00

buruileria plazan

Kontzertua: π.L.T.

8

LARUNBATA

GOIZEAN

10:00

espainia plazan

Dianak (Ikus 5eko egitarauan).

10:00-14:00

foru plazako pilotalekuan

Andre Maria Zuriaren saria:

Eskuz binakakoa.

11:00

zezen-plazan

Bigantxak

EGUARDIAN

12:00

zezen-plazatik abiatuta

Kalejira: Arabako Trikiti Elkarte.

Erraldoi eta buruhandien konpartsa: Aitzogile kalean, San Prudentzio egoitzan, Frantzia kalean eta Errege atean.

peñafloridako kondearen plazan

Gargantua

espainia plazan

Kontzertua: Araiaiko Musika Banda.

12:00-14:00

auzoetan

Callejon sin salida fanfarrea.

12:30

aihotz plazan

Trikitia: Gasteizko Trikiti Eskola
Florida parkean
Udal Musika Bandaren kontzertua. Zartzuela musika.



13:00

foru plazan

Herri kirolak: gizon-proba, tantai gaineko aizkolaria eta harri-jasotzaileak.

13:30

aihotz plazan

Bertsolariak: Jon Lopategi, Jon Enbeita eta Irineo Ajuria.

ARRATSALDEAN

16:45

espainia plazatik zezen-plazan

Zezenetara joatea.

18:00

zezen-plazan

Abonuko 4. zezenketa. Julio de la Puertaren abeletzeko zezenak, Jose Ortega Cano, Victor Puerto eta Raul Gracia el Tato zezen-hiltzaileentzat.

vicente goikoetxea kalean

Aragoiko jotak: La fier.

Florida parkean

Haurrentzako dosteta:
Adardunak (euskaraz)

18:00- 20:00

peñafloridako kondearen plazan

Gargantua

19:00

aihotz plazan

Arabako IV. Trikitilari
Txapelketa eta Arabako Haur
Trikitilarien II. Txapelketa

amarika plazan

Jazza: Santiago Reyes.

prado parkean

Dantzaldia: Jaitxo taldea.

musika etxeko lorategian

Jazza: Iñaki Arakistain, Dan Roclins eta Jimmy Castro (saxoa, gitarra eta bateria).

20:00

principal antzokian

M^a Jose Cantudoren konpainia:
"Las leandras", Alonso
Maisuaren komedia musikala.

20:30

zezen-plazatik espainia plazan

Zezenetatik itzultzea.

aihotz plazan

Dantza plazan. Larrain dantza eta txulalai, Udalaren Folklore Akademiako gaitajoleekin.

montehermoso kulturunean

Ganbera-musika:

Burgos Musica

Antigua taldea (ahotsa eta gitarra).

GAUEAN

23:00

mendizabalean
(rhee)

4. su artifizialak,

Brunchu pirotekniaren eskutik.

principal antzokian

M^a Jose Cantudoren konpainia: "Las leandras" antzezlan, Alonso Maisuaren komedia musikala.

23:30

arka plazan

Gau-jaia: Bilbao band.

aihotz plazan

Kantaldia: Trikimailu.

olagibel kalean

8 zezensuzko eta musika-giroa
Callejon sin salida fanfarrearekin.

00:00

foru plazan

Kontzertua: Lucrecia.

00:30

espainia plazan

Montes Blancos orkestra.

probiatzia plazan

Salsa: Eddy MacLean.

1:00

burulleria plazan

Kontzertua: Koma Iruñako taldea airtuko da, *El Infarto* diskoa aurkeztzen.

23:00-3:00

erdialdean eta alde zaharrean

Callejon sin salida fanfarrea.

GOIZEAN

10:00

espainia plazan

Dianak (Ikus 5eko egitarauan).

10:00-14:00

foru plazako pilotalekuan

Andre Maria Zuriaren saria:
Eskuz binakakoa.

10:30

zaramaga eta el pilar

Musika auzoetan. Arabako
Errioxa Txaranga.

11:00

zezen-plazan

Bigantxak

EGUERDIAN

12:00

zezen-plazatik abiatuta

Kalejira: Arabako Trikiti
Elkartea.

peñafloridako kondearen plaza

Gargantua

vicente goikoetxea kalean

Pailazoak: Azkona taldea (euskaraz).

espainia plazan

Kontzertua: Martzilako (naffarroa) Gazteen Musika banda.

12:00- 14:00

musika-giroa auzoetan

Callejon sin salida fanfarrera.

12:30

aihotz plazan

Trikitia eta alboka: Udal
Folklore Akademia.

florida partean

Udal musika bandaren
kontzertua. Musika
moderno.

13:00

peñafloridako konde-

ren plazan

Txotxongiloak: Bihar (euskaraz).

foru plazan

Herri kirolak: Harrijasotzaileak
eta aizkolariak.

ARRATSALDEAN

16:45

espainia plazatik zezen-pla-
zara

Zezenetara joatea.

13:30

aihotz plazan

Bertsolariak: Oihane Perea,
Zigor Enbeita eta Asier
Iriondo.

18:00

zezen-plazan

Abonuko 5. zezenketa. Herede-
ros de D. Andres Ramos abele-
txeko zezenak, Juan Mora, Jesus
Janeiro *Jesulin de Ubrique* eta
Jose Ignacio Ramos.

vicente goikoetxea kalean

Jotak: Alma navarra.

florida partean

Haurrentzako dosteta: Detraka
(euskaraz).

18:00- 20:00

peñafloridako kondearen plaza

Gargantua.

18:30

poietxe plazan

Musika-giroa: Arabako Errioxa
txaranga.

19:00

amerika plazan

Jazza: Cartoon band.

prado partean

Dantzaldia: Jaitxo taldea.

aihotz plazan

Dantza plazan: Udal Folklore
Akademia.

musika etxeko lorategian

Ganbera-musika: Musica
Reservata (sopranoa, klabea,
ganba-biola eta oboea).

20:00 eta 23:00

principal antzokian

M^a Jose Cantudoren konpainia:
"Las leandras", Alonso
Maisuaren komedia musikala.

20:30

aihotz plazan

Dantza plazan. Larrain dantza
eta txulalai Udal Folklore
Akademiako gaitajoleekin.

zezen-plazatik espainia plaza

zezenetatik itzultzea.

9

IGANDEA

montehermoso kulturunean

Ganbera-musika: David
Sagastume (biolontxelo), Ana
Ortega eta Euzi Zubiri (klabea
eta ahotsa).

GAUEAN

23:00 eta 1:15

espainia plazan

Scala Royal orkestra.

23:30

olagibel kalean

8 zezenazko eta musika-giroa.

23:45 eta 1:15

probintzia plazan

Luzmila y su grupo Camaleon.

1:00

andre maria zuriaren plazan

Jai bukaera: Zeledon agurtu eta
igotzea. Azken traka.



... eta gainera:

Blusa batzordeak eta blusa taldeek antolatuta

5
asteazkena

11:00

Juan de ayala plazan
Aire-bataioa, Okerrak blusa-
taldeak antolatuta.

3:00-3:30 (gauean)

foru kalean (irizistalekuko
aldapan)

Musika giroa: Karraxi blusa
taldea, fanfarrearekin.

6
osteguna

00:30

arka plazan

Gau-jaia. antolatzaile: Okerrak
blusa-taldea.

3:00-3:30 (gauean)

foru kalean (irizistalekuko
aldapan)

Musika giroa: Karraxi blusa
taldea, fanfarrearekin.

7
ostirala

11:00

andre maria zuriazen plazan

Zere 4. argazkia, dohain. Antola-
tzaile: Bereziak blusa-taldea

12:30

probintzia plazan

Txistu erakustaldia.

basitxuri kalean

VIII. Gamba-jate herrikoia.
Antolatzaile: Gasteiztarrak
blusa-taldea.

21:00

espainia plazan

Omenaldia ikurrinari.

3:00-3:30 (gauean)

foru kalean (irizistalekuko
aldapan)

Musika giroa: Karraxi blusa
taldea, fanfarrearekin.

8
larunbata

10:00

espainia plazan

Bereziak II. Gastronomi lehiaketa,
blusa-taldeentzat. Antola-
tzaile: Bereziak blusa-taldea

12:00

probintzia plazan

El meneito veterano beteranoen-
tzako III. Dantza lehiaketa.

Antolatzaile: Nekazariak
blusa-taldea.

3:00-3:30 (gauean)

foru kalean (irizistalekuko
aldapan)

Musika giroa: Karraxi blusa
taldea, fanfarrearekin.

9
igandea

3:00-3:30 (gauean)

foru kalean (irizistalekuko
aldapan)

Musika giroa: Karraxi blusa
taldea, fanfarrearekin.

gasteizko jaietako txosna batzordeak antolatuta

4
asteartea

23:00

Gau-jaia: Katu beltz
(Gasteiz)

5
asteazkena

23:00

Ekon (Arrasate)

1:00

Barricada (Iruñea)

6
osteguna

23:00

Joxe Ripiau (Irun)

1:00

Spook & the guay
(Tolosa, Frantzia)

7
ostirala

11:00

Trimelon de naranjos
(Katalunia)

12:30

Hechos contra el
decoro (Madril)

2:00

Habeas Corpus
(Madril)

luis heintz kalea
katedral berriaren
atzekaldean

8
larunbata

23:00-3:00

gasteiz-rock gaua

Obligaciones

Síndrome de descontrol

In albis

Los padrinos

Factor rhesus

Bouazán

00:00

Zea mays (Bilbo)

1:30

Bi kate (Zarautz)

00:00

Nuevo catecismo
católico (Donostia)

abuztuaren 5etik, asteazkena,
9ra arte, igandea

18:00

penaflozida kontsearen plazan
Haurrentzako III. Txiste
Lehiaketa

00:30

florida parkean
Karaokea

canal gasteiz telebistak antolatuta

7
an. ostirala

12:00

loma jeneralaren plazan
Haurrentzako pottokak

BETAGARRI

Arren erro zaharra

TESTUA: TXABI ARNAL GIL

ARGAZKIA: EDORTA SANZ



Arren Erro Zaharra, hauxe da Betagarri taldeak bere bigarren lanari izena emateko aukeratu hitz-jokoa. Mestizajearen bidetik ibiltzen dauzkagu berriro ere, ska taldea ez direla ziurtatzen diguten zortzi lagun hauek. Lehenengo lanarekin, jende gutxi gerturatuko zitzaielakoan, arrakasta nabarmena jasoz geroztik, hemen ditugu Betagarrikoak bekatu egitera gonbidatuz.

Ekainaren 5-etik dendetan dugu zortzi gasteiztar hauen bigarren lana. Soinu trinkoagoz, abesti landuagoz, eta musikajole trebeago bilakatuta, hemen daude Betagarrikoak, Euskal Herriko musika munduan leku aipagarria betetzea merezi dutela erakutsi asmoz. Triku ez da inoiz haiengandik aldendu, eta bigarren disko honetan ere produkzio lanetan aritu da. Aldaketarik? Bai. Mikel, hasierako bateriajolea, joan eta bere ordeiz Iker etorri zaigu. Bitartean, diskoaren grabazioa gauzatzeko, hain zuzen, Hasier Olegaren laguntza jaso dute. Dena den, hau ez da izaniko kolaborazio bakarra, zeren eta Maixa eta Ixiar, Joselu eta Luis Camino euren ondoan izan baitituzte Katarain estudioetan emandako egunetan.

Nolanahi ere, hau guztia argiago azaldu ziguten Unaik eta Mikelek.


Promozio lan ederra egiten ari zaretela ematen du.

Lehenengo diskoa ezagutarazteko egunkarien eta musika-aldizkarien propagandaz baliatu ginen. Hala ere, oso elkarriketa gutxi egin genituen. Bigarren lan honetan, aldiz, propaganda eta promozio-elkarriketak batera egiten saiatzen ari gara.

Eta promozioak Euskal Herritik kanpora eramango zaituzte?

Udan ezin pentsa dezakegu horretan, hemen asteburuero bi kontzertu gauzatzen ditugu-eta. Kanpoan eskaintzen dizkiguten agerraldi gehienak baldintzarik gabekoak izan ohi dira. Sarri askotan bidaian gasta-

J A T E T X E A



Aiztogile (KUTXI), 26 tfnoa: 28 81 47
GASTEIZ

EUSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 25 56 90 GASTEIZ

arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESTERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 28 18 38

tzen duzuna kontzertuarengatik irabazitakoa baino gehiago izaten da. Batzuetan Gasteizera diru gutxiagorekin bueltatzea gertatu izan zaigu. Hori izan ohi da Euskal Herriatik kanpora ateratzera animatzen ez gaituen: diru eskasa eta data eza.

Triku berriz ere produkzio lanetan izan duzue.

Berriro ez! Triku beti egon da gurekin, ez zaigu inoiz joan. Betagarriekin aritu da hala entsaioetan nola abestiak sortzen. Estudioetan zaude-nean abantaia ederra da ezagutzen zaituen produktore bat izatea. Berak hasieratik bazekien zer egin nahi genuen eta zeintzuk ziren gure asmoak. Eta hori, jakina, zeharo lagungarria izan dugu. Bera eta gu hizkuntza beraz mintzatzeak ere lana erraztu digu.

Ba al da ska Betagarriren ezaugarririk nagusia?

Ez. Gure ezaugarririk nabarmena zein den? Nahasketa, mestizajea... Hori bai dela Betagarriren gakoa. Jende askok halaxe uste badu ere, gu ez gara ska taldea, nahiz eta ska abesti batzuk jo.

Talde berritzailea dugu Betagarri?

Berritzailea? Ez. Gure ustez musika mundu honetan dena, edo gehiena behintzat, asmatuta dago. Agian beste batzuek baino garrantzi handiagoa ematen diegu haize musikatresnei, eta hori baliteke, Euskal Herriko beste taldeekin parekatuz, desberdintzen gaituena izatea. Originala izatea, berezko soinua edukitzea, eta berritzailea ez da gauza

Musika mundu honetan dena, edo gehiena behintzat, asmatuta dago

bera. Gainera, ez ditugu geure buruak gai ikusten aurrerapen handirik egin ahal izateko.

Orain, aurreneko diskari erreparatuz, eta bigarren honekin alderatuz, zer deritzozue iaz kaleratutakoari? Grabatuko al zenukete berriro?

Lehengoa eta oraingoa parekatzerakoan gauza asko aldatu direla ohartzen gara. Egun musikari trebeagoak gara, gure soinua trinkoagoa da, abestiak biribilduagoak... Lehenengoa beti freskoena izaten da, baina horrek ez du esan nahi onena izan behar duenik. Estreinakoa nahiago izango bagenu, zerbait txarto dabilela garbi legoke. Taldeak aurrera jo behar du, eta aurrera doan taldeak lana gero eta hobeto egin ohi du. Bigarren aldiz grabatzea? Bai, grabatuko genuke, zergatik ez? Ez litzateke gauza txarra izango lehengo abestiak gaurko jakituriar bustitzea. Dena dela, hasierako abesti horiek eguneratu behar ditugu, kontzertuetan jende askok eskatzen baitizkigu.

Nonbait entzun dugu Arren Erro Zaharra hau lan kontzeptuala dela.

Kontzeptuala? Ez dakigu. Behar bada lehenarekin konparatuz hau kontzeptualagoa izan daiteke, zeren eta azkenaldi honetan eginiko abestiek xede zehatza baitzuten; bigarren lan hau osatzea, hain zuzen. Lehenengoa taldearen bizitzan barrena konposatu abestiak bildu genituen, horixe izan zen gure lan-irizpidea. Orduko kantak ez ziren diskorik gauzatzeko jaio, diskoa grabatzeko parada beranduago ailegatu zitzaigun-eta. Kon-

tzeptuala hitzari dagokionez, honek esan nahi badu lan osoaren ardatza ideia edo gai zehatz bat dela, ez; ez dugu kontzeptuala denik uste. Zerotik hasitako lana izatea, eta abesti orok helburu bera dutela aditzera eman nahi badu kontzeptuala hitzak, orduan bai, Arren Erro Zaharra lan kontzeptuala da.

Frantsesez, gaztelaraz eta euskaraz.

Hauek dira zuen azkenengo lan honetan erabili dituzuen hizkuntzak. Abestien ala erritmoaren arabera aukeratzeko al duzue bata ala bestea? Pentsatu al duzue inoiz kanta bera bi hizkuntza desberdinetan grabatzea?

Gehienetan testua dugu musika sortu baino lehen. Esaterako, gure disko honen kanta batean Comandante Marcos-en ipuin bat kontatzen da, gaztelaraz dagoena, eta guk errespetatu dugu, ez dugu batere aldatu. Frantsesez abesten duguna aho-korapilo bat da, eta hori ere, jakina, ez dugu ukitu. Normalean hitzak buruhausterik gabe jaiotzen dira, eta gehienetan hauen sorketa euskaraz suertatzen da. Horrexegatik Betagarriren hizkuntza nagusia euskara da, eta izango da. Hurrengoan auskalo zein hizkuntzatan egiten dugun kantaren bat edo beste, batek daki! Ez ditugu gauzak aldeztu aurretik finkatzen. Abesti bera hizkuntza desberdinetan kantatzea? Horretaz ez dugu inoiz pentsatu, nahiz eta diska honetako abesti batek gaztelera eta eusker nahasten dituen. Denetara ere, gero geroak!

Errege Atea 9

bar · restaurante · albéniz

GASTEIZ

PLATÓ

TABERNA

22 65 64

GASTEIZ

Zaldian Plaza, 10

JANTZI ETA OPARIAK

Aiztogile (KUTXI), 27

Tfnoa: 26 07 10

GASTEIZ

SARTU

PARRAL

SAN FRANCISCO KANTOIA 4 GASTEIZ

Tf: 276833

Asistatzenik edukiak

Jantziak

BEGETARIAN

Pintxoak

Asistatzenik edukiak

Asistatzenik edukiak

Asistatzenik edukiak

BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1

Tfno. 14 64 10

GASTEIZ

MIKEL DELIKA

ARTEPAN

Artisau

Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ



gaurkoak eta betikoak

rock'n'roll-aren historia formato berrian



IZENBURUA: BUENA SUERTE.

TALDEA: LOS RODRIGUEZ.

DISKETXEA: POLYDOR.

URTEA: 1991.

Zazpi urte eman zituzten elkarrekin Los Rodriguez-ekoek, zazpi urte hasieratik merezita zeukaten arrakastaren bila, eta, bai aldrebesa izaten dela bizitza! Ospea eta salmenta handiak eskuratu bezain pronto taldea desagertu zen.

Dena dela, Los Rodriguez taldeak bost disko eder oparitu zizkigun bere bizitzan zehar, eta bost lan horietatik boskote honen karrera estreinatu zuen *Buena Suerte* izeneko hau aukeratu dugu zuei aurkezteko.

Los Rodriguez ez ziren musika mundura iritsi berriak, ez, esperientzia handiko musikariak baizik. Andres Calamaro, abeslaria, Estatuan ezaguna ez zen arren, izen entzuna zen Hego Amerikan. Gitarrajoleak, berriz, Julian Infante eta Ariel Rot, bazekiten ozeanoko bi aldeetan arrakasta edukitzea zer zen, Tequila rock-talde famatuarekin arituak izan baitziren. German Vilellarekin baterian, eta

Guillermo Martinekin baxuan, *rock and roll* eta erritmo latindarrez disko-merkatura, kaleak, irratia eta tabernak bete behar zituen taldea osatu zuten.

Eta Los Rodriguez-en historia *Buena Suerte* izeneko diskoa honen bitartez hasi zen. *Enganchate conmigo* gu guztiok erakarri behar gintuen kanta zen. Hala ere, beharbada promozio lana ahul gertatu zelako, entzule gutxi heldu zien abesti zein taldeari. Horrela gauzak, sei urte pasa behar izan ziren Los Rodriguez-ek arrakasta jendetsua erdietsi arte; *Buena Suerte* osatzen duten hamahiru abesti bikainak guztion belarrietan barneratu zirenean, hain zuzen.

Hala eta guztiz, denborak euren alde jokatu du azkenik, eta *A los ojos*, *Mi enfermedad*, *Canal 69*, *La mujer de un amigo*, *Sol y sombra* eta *La mirada del adios* kantek, zazpi urtez gero, guregana fresko ailegatzea lortu dute.

Azken finean, abesti onak ez dira inoiz hilko.

TXABI ARNAL GIL

IZENBURUA: DANTZAK.

TALDEA: ENRIKE ZELAIA.

DISKETXEA: ELKARLANEAN.

URTEA: 1998.



Zazpiak Bat bilduma lana zabukatu ondoren eta Festara diskoko erromeria kutsuari jarraiera emanez aurkeztu du Enrike Zelaia Dantzak izeneko sorta hau. Lan honekin euskal musika tradizionalarekiko joera eta maitasuna agerian utzi du, beste behin ere, soinu-jole altsasuarra. Izan ere, Euskal Herri osoko dantza herrikoiak aurkeztu dira, alaiki eta gogotsu interpretatuak,

dantzariaren kemena eta argia pizteko.

Monografiko hau merkatu zabalagoarentzat buruturik dago, baina batez ere akordeoia zein herriko dantzen zaletuentzat eta Enrike Zelaia lanaren jarraitzaileentzat. Dantzak izeneko disko

konpaktu honetan Zazpiak Bat bilduma-lanaren laburpen koloretsua aurkituko duzu: tradizioaren grinaz, Euskal Herriko zazpi probintzietan sortutako piezak, dantzariaren gorputzari begira moldaturikoak, gure iraganaren oroigarri eta etorkizunaren oinarri. A.Z.

beste batzuk

DENBORA

Π. L. T.

ESAN OZENKI



Esperimentazioa atsegin duela lehendabiziko lanean ere erakutsi zuen Mungiatik datorren talde honek, baina *Denbora* izeneko konpaktu disko honekin indartu egin du ideia hori, eta horren lekuko dira basoan eta kalean grabatutako gitarra soinu eta ahotsak, besteak beste. Baina hala ere nabariak dira arrakasta eman zion lan harekiko ezberdintasunak. Talde lana helduagoko nabari da, eta doinu gordinak eta erritmo latzak mantendu arren melodikoagoko orohar. Aurreneko entzunaldian ulertzeko zailagoa ere bada *Denbora* lana. Eta irudi dezakenez kontrako, samplerik ez. Soinu guztiak, arraroak izanik ere, akustikoak edo teklatuarekin lortutakoak dira.

AINHARA ZUAZABETIA

BILBAO 00:00H.

Kepa Junkera

RESISTENCIA

Dadoeneko 20 urte egin ditu Kepa Junkerak musikarekin lan egiten eta esan genezake disko hau horren emaitza dela. Madrilgo Resistencia disketxeak heldu dio Keparen apustuari, eta Euskal Herri-kanpokoentzat, batez ere, lehendabiziko disko izango da honakoa. 23 kantuz osatua dago disko konpaktu bikoitz hau. Denak Junkeraren konposaketak dira bi ezik, *Sodade*, Cabo Verdeko kantu herrikoia eta *Maitia non zira*, Zuberoako kantu ezaguna. Asko aldatzen dira kantutak batetik bestera eta sonoridade nabarra du, izan ere hamaika herriko musika tresnak entzun ditzazkegu lan honean. Euskal Herriko eta nazioarteko 52 musikari gonbidatuta daude, tartean Carlos Nuñez (Galiza), La Bottine Souriante (Quebec), Dulce Pontes (Portugal), Etzakit, Alaitz eta Maider... Azpimarratzekoa da Madagaskargo Justin Valik egin duen kantua, *Fali Fali* izeneko, eta *Poza* esan nahi duena. Lan kosmopolita eta ausarta, musikalidadez josa, Kepa bera bezala.

AGURTZANE ARRIZABALAGA

gureak
Arabako taldeen
azken ordua

Musikari emandako bizitza osoagatik omendu nahi dugu... esaldia gehiegi xamar errepikatu ohi da han-hemenka musikariei egin ohi zaizkien omenaldietan. Oraingoan zuenganatu nahi dizuegun kasuan, alabaina, merezimendu osoz bota diezaiokegu gure omenduari arestiko esalditxo. Bihotzez era berean gipuzkoar eta arabar, Xipri Larrañaga azkoitiarrak euskal musikaren liburu guztietan

du lekua. **LOS XEY** famatu haietan eta **GALLUR** taldean, gero, konpositore, zuzendari, abeslari eta beste hainbat eginkizun izandakoak, Brusel Batzordearen eta Katanga-Gasteizen omenaldia jaso zuen Santiago egunean, ile zuriko eta ez hain zuriko euskal musika-zalaren gozamenerako. Txapela eskuan zuela, negarmalkoei ezin eutsiz, jaso zezakeen omenaldirik beroena eduki zuen,

Gallurreko kideen kontzertu batekin. Saioaren amaieran gainera, laukotea boskote bihurtu zuen, kontzertuaren azken abestia zuzendu baitzuen. Xipri Larrañagak ez du atsedean hartuko, lan egiteko beharra zainetan baitarama, baina egunen baten sofan etzanda lo hartzen badu, zinez, Santiago egunean ehundaka pertsonen txalo zaparradarekin amets egingo du. Bihotzez, zorionak Xipri!

LEHIAKETAK

Itzulpen laburrak. Arrasateko AED Elkarteak Jokin Zaitegi Itzulpen laburren XII. Sariketarako deialdia zabaldu du. Gai librean, munduko edozein hizkuntzatatik itzulita-ko idazlanak aurkez daitezke. Bi sari izango dira, 200.000 eta 100.000 pezetakoak. Xehetasun gehiago eskatzeko eta lanak bidaltzeko hona hemen helbide hau:

AED Elkarte - Jokin Zaitegi Sariketa

Pablo Uranga kalea, 4 behe.

20.500 Arrasate (943 77 12 28)

Ondarroako Itsas-azoka

narrazio saria. Batueraz zein bizkale-raz, Arantzako bizibidea, eserak, arrantzu-erak eta tresnak, kofradien eraketa eta oro har, itsasoa eta Ondarroari lotutako gaiak oinarri hartuta, 10 eta 25 orrialde bitarteko lanak onartzen dira. 300.000 pezeta saritan. Lanak hartzeko azken eguna irailaren 15a izango da. Informazio gehiago honako lekuan:

Lea Artibaiko Amankomunazgoa

Oletako Eskoletxea, Ugarran auzoa

Amoroto. (94 684 26 96)

Argazki lehiaketa gazteen-

tzat. Arabako XI. argazkilarik gazteen lehiaketa antolatuta du Arabako Argazkilarien Elkarteak. Foru aldundiko Kultura eta Euskara Sailak babesten duen ekimen honetan 12 eta 19 urte bitarteko arabarrek har dezakete parte, hala bakarka nola talde-ka, ikastetxe, Institutu edo gazte

JOKIN ZAITEGI

XII. Itzulpen laburren sariketa

AED antolatuta

Gidatuta Donostia, Kitzbühel, Amsterdam, Ginebra, Paris, Antwerpen eta beste hainbat hiri

Arrasate 98

Erakundeen bidez. Gaiak libre da eta 1998ko urriaren 23an bukatuko da argazkiak aurkezteko epea. Edozein teknika balio du.

ANTZERKIA

El Florido pensil. Azken urteotan Euskal Herrian goza ahal izan dugun antzezlanik paregabeenetakoak gure eske-
natokiak zapalduko ditu berriz ere. Komediazaleen eskariari erantzunez, Principal antzokiak Tanitaka Teatroaren El Florido Pensil lana jasoko du abuztuaren 1ean (20:00etan eta 23:00etan) eta 2an (20:00etan). El Florido pensil Fernando Bernues eta Mireia Gabilondoren zuzendaritzapean datorrigu, besteak beste, Jose Ramon Soroz, Enrike Diaz de Rada eta zorian Egileor antzezlari dituelarik.

Principal Antzokia (945 16 10 45)

Besaulkia eta anfiteatroak:

1.500, 2.000 eta 2.500 pezeta

IBILBIDEAK

Ibilbidea eskulturan zehar.

Montehermoso Kulturuneak Gasteizko kale eta parkeak hornitzen dituzten eskulturarik ezagutzeko ibilbide gidatuak antolatuta ditu. Bi ibilbide dira hain zuzen ere: lehenak Andra Mari Zinariaren plazan du iteera eta Dato kaleko ibiltarian du helmuga, ordu eta erdiko txangoa eta gero. Bigarrenak, antze-
rako denboran, Florida, Senda eta Frai Francisco Vitoria ibilbideak igarotzen ditu. Orotara, 25 eskultura bisitatu eta ezagutze-
ko aukera eskaintzen dute bi ibilbideok.

Montehermoso Kulturunea

Frai Zacarias Martinez kalea, 2

945 16 18 30 / 16 18 33 / 16 18 32

VII. Txirrinka. Eguzkik VII Txirrinka Txirindularen marxa antolatuta du. Uztailaren 31tik abuztuaren 2ra bitartean, partehartzaileek Arban egin asmo diren proiektu eoliko-
ak eta beren ingurugiroak ezagutzeko para-
da izango dute. Klatetuen iuritzak ere eza-
gutuko dituzte. Gasto guztiak kubrituko
dituzten 5000 pezetaren truke honako ibil-
bidea burutuko da: Amurrio-Gesaltza-
Gasteiz-Agurain-Kanpezu.

Eguzki koordinakundea

Aiztogile kalea

945 25 01 47

Sorginen ibilaldia. Anboto-
Zugarramurdi Sorginen Ibilaldia, Herri
Batasunak abuztuaren antolatuta ohi duen
mendi marxa da, Euskal Herriaren kultura-

ABUZTUKO gomendapena

ANDRE MARIA ZURIAREN JAIE-TARAKO DEIA

Andoni Egaña bertsolaria izango da aurtengo Andre Maria Zuriaren Festen egita-
raua aurkeztuko duena abuz-
tuaren 2an, igandea, Espainia
plazan burutuko den ekital-
dian. Egañarekin batera
Gasteizko Erraldoi eta
Buruhandien Konpartsa, Udal
Musika Banda eta Udal
Folklore Akademiako musika-
riak izan go dira. Esan bezala,
abuztuaren 2an, igandea,
arratsaldeko 20:30etan,
Espainia plazan.

ren jatorri eta gotorleku izan ziren mendiak zeharkatzen dituen, alegia. Aurtengo aldia abuztuaren 1etik 9ra bitartean egingo da, Arantzazuko Sandutegian hasita eta Baztango Amairuren amaituko delarik. Parte hartu nahi dutenen HBko egoitzetan edo Herriko Tabernetan los ditzazkete txartelak.

erakusketak

KULTUR ETXEA. Gas-
teizko zaindarien jaiak 1940-1975
Alberto Schommer gure argaz-
kilaririk esanguratsuenaren
erakusketa berriena da. Abuz-
tuaren 30era bitartean zabalik
Floridako Kultur Etxean.

MONTEHERMOSO.

Jazz Quintet Gasteizko,
Donostiako eta Getxoko Jaz-
zaldiak ezagutu izan dituzten
hiriko bost argazkilarik antola-
turiko mostra da. Ustaran,
Franco, Mingueza, Horna eta
Gutierrezen argazkiak hilarren
9ra arte izango dira ikusgai.

EGOA LIBURUDEN-

DA. Egoa liburu saltokiak
erakusketa berria du jada
prest. Uztailaren 13tik abuz-
tuaren 10era bitartean, Nikara-
guako emakumeak argazki-
erakusketa bisitatu dezakegu,
bere bizitza laburrean ekitaldi
anitz antolatuta dituen txokoan.

GESALTZA.

Arabako hiri
zaharreneko azken 100 urtetako
argazkiak jasotzen ditu
Gesaltza, zilarrezko 100 urte
erakusketak. Añanako Udale-
txeko erakustaretoan zabalik
izango da, abuztuaren irailean,
Añana Euskaraz festaren
aurrekari bezala.

lehiaketa

I. GEU GASTEIZ UDARAN ERE ARGAZKI LEHIAKETA

ALDIZKARIKO HARPIDEDUNENTZAT

GINARRIAK

Oporretan ateratako argazki
oro aurkez daitezke, baldin eta
beronetan gure aldizkariaren
azalen bat agertzen bada. Men-
dira, hondartzara edota basa-
mortura bazoaz, Araban geratu
ala urrun bidaiatzea aukeratu

baduzu, eraman zurekin ale bat
eta sari piloa irabaz dezakezu.

ARGAZKIAK AURKEZTEA

Argazkiak koloretakoak izan
behar dira, 10x15, 15x20 edota
18x24 neurrietan. Diapositibak
ez dira onartuko, bai ordea dia-
positiba batetik eta aipaturiko

neurrietako batean paperean ate-
rarako kopiak.

Argazkiak postaz bidali behar
dira, irailaren 15a baino lehen.
Argazkiaz gain, paper zuri bate-
an argazkia atera duenaren izen
abizenak, adina, helbidea, telefo-
noa, eta argazkian atera duen
lekua (herria, herrialdea,
nazioa...) adierazita egon behar-
ko dute.

EPAIMAHAI

Zein argazki saritu hiru per-

tsonek osaturiko epaimahai
batek erabakiko du (Geu Gas-
teizko kide bat, Geu Elkarte-
ko kide bat eta argazkilaritzan aditu
bat). Argazkiaren kalitateaz gain
argazkian aldizkariak duen
agerpena ere kontuan izango
dute.

SARIAK

Lehiaketaren oroigarriak, afari
goxoak, kamiseta euskaltzaleak,
liburu-sortak, eta askoz ere sari
gehiago.

kide **APAINDURA** **k**

Zerkabarren (Cercas), 27 Tfnoa: 14 41 95 GASTEIZ



Pintore kalea, 74. 28 97 80 Zaldiaran plaza, 16. 24 49 05
Errege-Erregina katolikoak, 15 - C. Behea. 28 89 22 28 89 44

Miauka, kurrinka, kakaraka... baina euskaraz

2, 3 ETĀ 5 ORDY

MAILA GYZTIAK

EGĀ, MINTZA ETĀ SĀKONTZE

MATRIKULAZIO EPEA
irailaren 1etik 19ra



HABEREN
dirulaguntzaz
antolatuturik



baina euskaraz baina euskaraz baina euskaraz

27

geu gasteiz

piti pata

txikiak

JAI OBERRIAK

URTE BATZUK GEROAGO, 2-5 urte

Ametsetan

Hortxe daukazue, gu hor gaudela ohartu gabe, Alvaro ametsetan eta atsedean txiki bat hartzen... Hain da gogorra haur txiki baten bizitza!!! Bai, ez pentsa: goiz esnatu, uretan sartu baharra, gosalduta, buelta- txo bat parketik *ume-kotxeak* ikusteko, laztan eta mimo ugari izan, asko jan eta, nola ez, lo egin. Alvarorentzat hau eguneko unerik politena da, eta zerekin amesten duen? Ba tira, batek daki, baina bere

aitak berataz une batez ahazten bada, berehala ametsen munduan murgiltzen da.



TESTUAK: ITZIAR URIARTE
ARGAZKIAK: EDORTA SANZ

Bizikletak udarako

Belaunetakoak, kaskoa, esku-larruak eta, ezinbestekoa, bizikleta. Ekipamendu honekin Ander eta Gorkak ziztu bizian dabilta Gasteizko parketatik, baina dena esan behar da, primeran eta leporaino babestuta.

Bizikletaz ibiltzeaz nekatzen direnean... zertan jolastu? Ba..., betidanik hain hedatua dagoen kirolean; futboleant. Hirian zein Kanpezun gol eta kilometro asko beteko dituzte, Indurain zein Julenen antzera.

HAUNDITZEN, 6-12 urte

Ipuina:

ZEBRA ETA BERE LAGUNA

Behin batean bazegoen zebra bat lagunik ez zuena. Bila eta bila ibili ondoren ez zuen aurkitu baina atzera begiratu zuenena ume bat ikusi zuen eta bere laguna izan nahi zuen. Eta handik aurrera zebrak lagun bat izan zuen.

Maria, 7 urte.
Barrutia Ikastola.



gasteizko jaia

ONDO PASA




Katalan bat gure artean

Ivan udan gure hirira etorritako katalana da. Gasteizera heltzerakoan irrikan dago



alberto

yerai



inigo



Datorren hilabetea zure marrazkia argitaratua ikusi nahi baduzu bidaliguazu honako

Geu Gasteiz aldizkaria
Pedro Arga kalea 2. ja.

GAZTEKOAK, 13-17 urte

abuztuaren 4-a noiz helduko zain, festetako giroaz benetan gozatzen delako.... Kontzertuak, blusak..., baina batez ere Zeledon-en jeitsieraz. Egun horretako bere kokalekua ez da plaza-ren erdian, baizik eta izkin batean. Beraz, ez da guztiz bustitzen eta ez du benetako bultzakadarik sentitzen. Baina pozik dabil!!

k zuenak dira HAURRAK

SALBUESPENA SALBUESPEN

Gorka Aginagalde / Sobradun antzerki taldeko kide

alantzarik gabe, brusadunen koadrilak oso garrantzitsuak dira Gasteizko jaietan, kolore eta giro paregabea eskaintzen baitute; hala ere, nire ustez eta jaietan parte hartzeko eta dibertitzeko brusa janzten duten gutxi horienganako errespetu osoz, gaur egungo *brusadun* gehienek, zoritxarrez, iparra galdu dute. Denbora gehiago ematen dute kalimotxoa (hemengo edari horrek nire errespetu osoa du) neurrigabe edaten saltoka, kantuan eta dantzan baino. Eta kolore askotako *brusa* horiek armadura gisa hartuz, edozer gauza egiteko eskubidea dutela uste dute. Ondo ezagutu ditugu guztiok edo, gutxienez, entzun ditugu brusadunen eskutik irinez zuritutako eta, ondoren, urez bustitako (orea sendotzeko eta, hala, *broma are dibertigarriagoa* izateko) jendearen istorio kuttunak. Eta nork ez du zeharka-meharka ibili behar izan tropel hauek, Atilak horren pozik hartuko zituen tropel hauek, utzitako pixen eta ardo merkearen errekatxoak saihesteko? Bestalde, guztiok izaten dugu letra dotorez lagundutako melodia eder horiez gozatzeko aukera, gure belarriek atsegin hartzen dute horiei lagunatzeko erritmoren arrastorik ez duten bonboen *soinuekin*, gehienetan ezordutan, Morfeoren besoetan gaudenean, entzuten diren soinu horiekin. Badirudi koadrila batean bonboa jotzeko belarririk eta erritmorik ez izatea ezinbesteko baldintza dela; horretaz gain, astakiloa izatea eta bonboaren larrua kolpe bakar batez suntsitzeko gaitasuna izatea ere kontuan hartzen dute.

Ez dut horrelako kontuetan luzatu nahi, agian eraso zuzenaren itxura har baitezake (Jainkoak libra nazala!) eta, adibide moduan, nik neuk bizi izandako pasadizo bat kontatuko dizuet.

Duela bi urte, San Prudentziotan, lagun bat eta ni Mendizorrotzako kiroldegiairendotik igaro ginen. *Brusadun*ez lepo zegoen ingurua. Dirudienek, herri-bazkaria zuten koadrila guztiek. Goseak bultzatuta bertara hurbildu ginen eta, bertan, guztiek sarrera ordainduta zutela eta bazkaria ere sartzen zela esan ziguten, baina, jakina, sarrera erosteko brusaduna izatea ezinbestekoa zen. Goseak ginen eta bertako giro polita ikusita (benetan esaten dut), etxera joan eta brusak, abarkak eta gainerakoak jantziz, horren lagun atseginekin bazkaltzeko asmoz joan ginen...

Erabat harrituta geratu ginen gure brusek inolako ezkuturik ez zutela eta, beraz, ezingo genuela sartu konturatu ginenean (ordainduta ere ez ziguten sartzen uzten!). Une hartan gure betebeharrak nagusiak gosea asetzea eta parranda zirenez, adimena zorrotz eta janariaren kamioia sartzeko ate bat irekitzen zela ikusi genuenean, lotu brusak gerrian eta, *Laguntzerik nahi?* esanez, kazola artean barrura egin genuen azkenean... Gauzak geuk zuzendu beharko genituela konturatu ginen berehala, halakoxea baitzen hango nahasmendua, eta defendatzeko modurik onena erasoari ekitea denez, horrelako zerbait esan eta nahikoa: *Txo, alderdi horretara patatak! Hona txorizoa! Eraman haragia barrurago! Ea ba, mutilak, mugitu pixka bat, jendea gose da eta! Aupa brusadunak!*

Laguna ezkerreko aldeaz arduratu zen eta ni, berriz, eskuinekoaz; laster konturatu ginen geu ginela bazkaltzeko lehenengo eseri ginenak, gainerakoak, bitartean, ilaretan baitzeuden zain. Giroa ere gero eta beroagoa zenez, hartu patxaran botila eskuan eta harmailetara igo ginen, ikuskizunaz gozatzeko. Gauzak erabat aldatu ziren orduan. Egia diotsuet, uste dut guk bakarrik dastatu genituela errioxar erako patata gozo haiek eta haragia piperrekin, guztia ardo onez bustita, noski, brusadunen arteko sesio izugarriaren lekuko izan baikinaren han goian. Patatak misil bihurtu ziren, txorizo-zatiak gomazko pilota, haragipuskak txapeletan, brusetan eta aurpegietan itsasten ziren...

Begiak gero eta zabalago genituen ikuskizun hari begira eta "istilutxo hura gero eta larriago bihurtzen ari zenez", kafea beste lekuren batean hartzea erabaki genuen.

Pasadizo hura otutzen zaidan bakoitzean barre dezente egingen dut eta, inori irakasbiderik eman nahi ez badiot ere, harrez gero uste dut hobe dela lehenengo jan eta gero edatea. Gazteok, hobe da urdailean igeri egingo duen zerbait izan! Gainera, bada desberdintasun nabarmen bat: sesio hartan gorpu ugari geratu zen lurrean han-hemenka, konortea erdi galduta eta "kakaz" josita, festa-giroaz gozaten jarraitu ezinik..., lagunak eta nik, aldiz, goizaldera arte ederki gozatu genuen bitartean. Mila esker bazkariagatik eta agur,

Egin jauzi brusadunak, baina zapaldu gabe.

✓

EGO LIBURUDENDA



LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA
Manuel Iradier kalea, 9-A Tnoa. 14 88 95

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA
Aiztogile (KUTXI) kalean

Argazki - Estudio
Erramun

Heraclio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tnoa: 13 71 02 Tnoa: 26 19 91
01006 01004

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA
URDAITEGIA

Paraguai kalea 17
☎ 27 07 90
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 ETA 3
☎ 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 ETA 3
☎ 26 78 97



JOSEBA
HARATEGIA

Paraguai merkatua
10 El Pilar auzoa
☎ 25 66 89
GASTEIZ




**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



Floridako altxorra !

35



adaka
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

ABDURRAHMAN HALILOĞLU KOTSE



... TA BUELTAK AMAI!!!

Maixa Lizarribar / trikitilaria

uskaldunok apustuzale eta parrandazale fama badugu. Nik neuk, apustuak ez ditut batere gustuko, baina parrandak bai. Oso parrandazalea naiz.

Nire lanbidea dela eta, ezorduan ibiltzera ohitua naiz, eta horrek gaua maitatzera behartu nau. Ez naiz batere goiztiarra.

Eguneko 24 orduak jai izaten direnean, nahi duenak festa aurkitzen du han edo hemen; bai haur, gazte zein nagusiagoek.

Egunean zehar, haurrak eta nagusiak ikusi ohi dira festa lekuetan, txikiteoa dela eta, edo haurrentzako jokuak daudelako. Iluntze aldean eta gauean berriz, gazteak dira protagonistak. Plaza batean edo bestean kontzertuak eta, noski, nahitaezko poteoa. Barkatu!!, nagusientzako ere egokiak diren kontzertuak izaten dira, eta derrigorrezkoa den poteo horretan ere ez zaie aurpegi txarrez begiratzen. Jaiak denonak dira.

Gasteizen bizi izan naitzen urte hauek, Gasteizekin halako lotura bat izatera bultzatu naute, eta nik ere gustuko ditut Andre Maria Zuriaren Jaiak. Euskalduna izatean, euskal tokietan mugitzea gustatzen zait. Kanpotar taldeen kontzerturen bat ikustea ere gogoko dut, hori ezin uka dezaket. Gainera, aberasgarria da, baina... beti ere, gehiago bultzatzen nau euskaldun giroak. Paregabea baita.



Gasteizen, euskaldun txokoak badira Aihotz plazan eta, nola ez, Aiztogile kalean. Lehenengoan kontzertuak, ikuskizun bereziak, sagardoa eta txorizoa eta, Aiztogile kalean, euskaldunok ezinbestekoa dugun poteoa. Denetara ere, beste lekutxo bat ere bada, hainbeste aipatzen ez dena: Katedral berriaren atzekaldea, edo hobeto esanda, denok uler dezagun, txosnak. Hainbeste buruhauste sortarazten dietenak agintari haundiei. Txosnak bai ala ez? Nire ustez, oso ukitu berezia ematen diete jaiei, beharrezkoak iruditzen zaizkit.

Baina honek guztiak zer dakar jai egin nahi duenarentzat: poltsikoa ederki astintzea. Egunean zehar kale bazterretan egon ohi diren gure begien tentatzaileek zapiren bat, kamisetaren bat, belarritakoren batzuk edo auskalo zer... erostera animatzen gaituzte, politak baitira. Etxetik kanpo izatean, jan ere nonbait egin

behar da, eta ez gara eguneroko ogitarteko batekin konformatzen. Eta tragoak!!! Noski!!!

Horrelako jai egun batean, zenbat gastatu ote daiteke?... Kapritxo haundietara jo gabe, eh!!!

Atera kontuak!!! Baina ez deprimitu. Horrelako jai egun bat botaz geroz, inork ez baitizu bizi izandakoa kenduko.

Ondo pasa jaiak. Txintxoak izan, asko ligau, gutxi gastau eta bueltak amai!!!

✓



axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



gasteiz

gasteiz

ZEZENKETEN BIDEGABEKERIA

Animaliei Tratu Etikoa ematearen Aldeko elkarteak

terro, milaka zezen hiltzen dira Espainia, Mexiko, Hegoamerika, Portugal eta Frantziako plazetan, gero eta gutxiago diren ikusle- en begien aurrean eta herritar gehienek ezaxolakeria hutsa ager- tzen duten bitartean. Bakarrik Espainian, 30.000 zezen baino gehiago hiltzen dira urtero oinazearen erdian. Kasuak kasu, noski, baina inkestaren arabera, horrelako ikuskizun ankerrak gus- tukoak dituzten lagunen kopurua murriztuz doa. Erakunde publiko eta pribatuak laguntza handia eman ohi dute zezenketek aurrera jarrai dezaten: dirulaguntza zuzenak emateaz gain, maiz sarrerak oparitzen dituzte eta erakundeetako ordezkarien presen- tia nabaria da horrelako ospakizunetan. Komunikabide publiko eta pribatuetan ere, zezenketek orrialde eta saio ugari betetzen dituzte. Gure erakunde eta komunikabideen jarrera, beraz, ez dator bat herritar gehienek agertzen dutenarekin. Nork irabazten du horrekin?

Zezen-plazak eraiki, alokatu edo mantentzen dituzten enpre- sek, toreatzaileak, kritikoeak, ganaduzaleak eta, kasu askotan, elkarte benefikoeak... Zezenketak batzuentzat negozio hutsa dira, bai. 160.000 lanpostu baino gehiago sortzen dituzte, eta hau dugu aitzakia galanta zaletuen ahotan. Zer gertatuko litzateke pertsona horiekin guztiekin? Nola bizi izango lirateke?. Gauza bera esan zitekeen drogak, armak edo animalia exotikoak debekatutako tra- fikoan saltzen dituztenei buruz... Baina zifra eta zaletuen aitzak- ietan galdu beharrean, sakoneko ideia batzuk gogora ekartzea gustatuko litzazuke. Inkestetan, kasu hipotetiko batean, gehien- go bat zezenketen alde agertu arren, animalien eskubideen alde lan egiten dugunok, animalistak, alegia, berdin berdin arituko ginatke zezenketak desagertu daitezkeen. Kontua ez baita pertsonen gustu edo zaletasunekin bat etortzea, edo beharrezkoa ez den oinazean oinarritutako lanpostuak mantentzea, animalia guztiek (gizaki guztiek bezalaxe) jaiotzen diren momentu beretik dituz- ten eskubideak errespetatzea baizik.

1978ko urriaren 15ean, UNESCOk Animalien Eskubideen Deklarazioa onartu eta aldarrikatu zuen. Bertako hitzaurrean eta 14 artikuluetan, animalia orok dituzten -edo ditugun- eskubide- ak azaltzen dira. Horien artean, batzuk gogoratzea merezi duela- koan gaude: Animaliei ez zaie inolako tratu txar edo ankerrik ezarriko (3. artikulua) eta Beharrik gabe animalia baten heriotza sortzen duten ekintza guztiak biozidioak dira, hau da espeziea- ren aurkako krimenak (11. artikulua). Zezenketak, hortaz, dekla- razio horren kontra dauden ekintzak izanik, ez lirateke onartu eta

mantendu behar.

Bestetik, kontuan hartu behar da zezenketak ez direla isolatuta dauden ikuskizun krudelak. Animalien sufrimendu edo heriotze- an oinarritutako ospakizunetariko bat dira, eta haiekin batera sail- katu beharko lirateke. Jende askoren ustez, oilar bati burua moz- tea, Coriako zezenari ezartzen zaizkion torturak, txakurren arteko borrokak edo ahuntz bat kanpandorretik behera botatzea basake- ria hutsak dira, baina zezenketak desberdinak dira; mantendu beharreko kultur manifestapenak, alegia. Moral bikoitza dugula esan daiteke: gauza batzuk beste batzuk baino errazago onartzen ditugu. Horren parean, gauza batzuk beste batzuk baino errazago errefusatzeko ditugula esan genezake. Jende franko zezenketen aurka azaltzen da espainolen festa delako, eta ez du inolako ara- zorik, adibidez, Lekeitioko antzar-festara joan eta bertan parte hartzeko, gurea den estakuruz. Berrito ere moral bikoitza. Zeren, funtsean, Lekeition gertatzen dena -azken urteetan, antzarrari burua kendu baino lehen hiltzen badute ere- eta zezen-plazetan burutzen den tortura, gauza bera baita: ongi pasatzeko animalia bati sufriarazi eta gero hau garbitzea. Eta hau inolaz ere ezin onar daiteke. Kasu hauetan guztietan, ohitura, kultura, betikoa, artea eta estetika bezalako hitzek ankerkeria baino ez dute ezkututzen.

Egin dezagun, bukatzeko, zezen-plazetan burutzen diren bide- gabekeriaren errepaso bat, zezenek, pertsonok bezalaxe, mina, bel- durra eta estresa sufritzeko ahalmena ere badutela ahaztu gabe. Eta hala ere, lidarako zezena via crucis izugarri batean abiatzen da gazte-gaztetandik: lehendabizi, amarengandik aldendu eta, bere suhertasuna frogatzeko, tintera (probaketa; suhertasuna neur- tzeko saioa) delakoa. Ondoren, animaliaaren agresibitatea proba- katzeko erasoak eta eraisketa. Zezenketa batean parte hartzeko hautatua bada, kamioi txiki eta estu batean eramango dute plaza- raino. Ziur aski, ordurako adar-puntak moztu dizkiote, egokitu zaion toreadore ausartak arrisku txikiagoa izan dezan. Beharbada drogak eman dizkiote, bidaian lasaitzeko edo suharragoa dela emateko. Plazara iritsi eta mugimenduak eragotziko dizkion kajoi batean sartzen dute. Hortik ateratzen denean, bere zain dagoen gizon talde bat ikusiko du ezagutzen ez duen toki deseroso bate- an, eta orduantxe hasiko da mina hartzen eta odola galtzen torea- tzaileak akabatu arte: pikak, banderilak, ezpata eta puntilla izango dira artelan eder hau osatzeko tresnak.

Azken hau da zezenketen benetako errealitatea. Gainontzeko guztia, apaingarria, aitzakia edo negozioa besterik ez da. /

IRVSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

TXVSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea GASTEIZ



ONDOKOETAN BADAGO EUSKARAZ DAKIEN LANGILERIK

UDAL-BULEGOAK ZERBITZUA

HELBIDEA

TFNOA.

Udaletxea

Argibideak eta Erregistroa	Espainia plaza, 1	16 11 88
Emakumeentzako Zerbitzua	Espainia plaza, 1	16 13 45
Errolda	Espainia plaza, 1	16 11 06
Euskara Zerbitzua	Espainia plaza, 1	16 15 22
Funtzio Publikoa	Espainia plaza, 1	16 11 41
Gazteen Argibide Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 30
Idazkaritza	Espainia plaza, 1	16 13 20
Prensa Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 37
Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1	16 13 08

Udala

(Dato kalea)

Borondatezko Diru Bilketa	Eduardo Dato kalea, 11	16 16 68
Zergen Gestioa	Eduardo Dato kalea, 11	16 11 33

Udala

(San Prudentzio kalea)

Gizartegiuntza	San Prudentzio kalea, 30	16 13 44
Hiri Hobekuntza	San Prudentzio kalea, 30	16 13 01
Ingurugiroa	San Prudentzio kalea, 30	16 11 20

Udal artxiboa

Argibideak	Unibertsitateko Ibilbidea, 1	16 14 99
------------	------------------------------	----------

Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia

Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 88
------------	-------------------	----------

Kultura

Argibideak	Goiuri Jauregia (Villa Suso)	16 12 70
------------	------------------------------	----------

Hezkuntza

Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
------------	---------------------	----------

Ekonomi Sustapena

Frai Zacarias kalea	16 12 11
	16 13 48

Gizarte Etxeak

Ariznabarra	Ariznabarra kalea, 19	13 36 91
Hegoalde	Alberto Schommer kalea, z/g	16 18 80
Iparralde	Zuberoa plaza, z/g	16 17 60
Judimendi	Urriaren Hamabiaren kalea, z/g	16 17 40
Lakua	Etxanobetarren zidorra, z/g	17 17 81
Landatxo	Santa Maria kalea, 4	16 16 82

Europa gizarte-etxea

Argibideak	Gasteiz hiribidea, 85	16 12 31
Biltzar eta Turismo Bulegoa	Gasteiz hiribidea, 85	16 12 61
Kontzientzia Eragozpena	Gasteiz hiribidea, 85	16 36 91



rriaga

Megadenda



Musika

eta

Liburuak



rriaga

Megadenda